



LETURIA NABAROA, Ana

Euskal Herriko Unibertsitatea  
Manuel Lardizabal 2  
20018 Donostia  
ana.leturia@ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2005), 14; 31-49]

Sarrera eguna: 2005.06.10  
Onarpen eguna: 2005.09.29

# Parte-hartzea hezkuntza-sisteman. Eskola-komunitatearen parte-hartzea eta identitate-zeinuak hezkuntzan

(Participation on educational system. The participation of the school community and identity signs on education)

**H**ezkuntzaren eremua betidanik izan da haur eta gaztetxo-  
ei jakintzak eta balioak igortzeko  
bide egokia. Indarrean dagoen hez-  
kuntza-sisteman, balioak landu  
behar dira plan orokorretan nahiz  
ikastetxeetako jardunean.  
Hezkuntzan landuko diren balioek  
eragina izan dezakete eskola-elkar-  
teko kideen kontzientzia-askatasu-  
naren eraketan (ikasleei begira) eta  
igorpenean (guraso, irakasle, ikas-  
tetxeari begira). Dinamika honetan  
garrantzitsua da balio horiek zein-  
tzuk diren zehaztea.

**Giltza hitzak:** Parte-har-  
tzea. Hezkuntza-sistema.  
Kontzientzia-askatasuna. Eskola-  
kontseiluak.

**E**l ámbito educativo ha  
sido siempre un medio adecuado  
para transmitir conocimientos y  
valores. De hecho, uno de los pila-  
res del sistema educativo vigente es  
la educación en valores, en cuya  
determinación es imprescindible  
contar con la participación de la  
comunidad educativa, dado que  
esos valores pueden tener inciden-  
cia en el desarrollo de su libertad de  
conciencia.

**Palabras clave:**  
Participación. Sistema educativo.  
Libertad de conciencia. Consejos  
escolares.

**Z**e domaine éducatif a  
toujours été un moyen idéal pour  
transmettre connaissances et  
valeurs. En fait, l'un des piliers du  
système éducatif en vigueur est l'in-  
culcation de valeurs; pour ce, il est  
indispensable de compter sur la par-  
ticipation de la communauté éducati-  
ve, étant donné que ces valeurs  
peuvent avoir une incidence sur le  
développement de sa liberté de  
conscience.

**Mots clés:** Participation.  
Système éducatif. Liberté de cons-  
cience. Conseils scolaires.



---

1. **Sarrera: gaiaren kokapena.** 2. **Parte-hartzea EKren eremuan:** 2.1. Parte-hartzea, EKn aitortutako printzipio juridiko. 2.2. Parte-hartzearen printzipioa eta bere lotura sistemaren oinarri diren balio gorenekin eta Estatu-ereduarekin. 3. **Hezkuntza-sistema:** 3.1. Hezkuntza-sistemaren oinarrizko araudia. 3.2. Hezkuntza-sistemaren ardatzak EKren arabera. 4. **Hezkuntzan parte hartzeko eskubidearen zehaztapena.** 5. **Parte-hartzea irakaskuntzaren programazio orokorrean:** 5.1. Eskubidearen zehaztapena. 5.2. Estatuko eskola-kontseilua: irakaskuntzaren programazio orokorreko partaidetza-organoa. 5.3. Programazio orokorrean parte hartzeko eskubidea eta kontzientzia-askatasuna. 6. **Parte-hartzea ikastetxearen kontrol eta kudeaketan:** 6.1. Eskubidearen zehaztapena. 6.2. Ikastetxeko eskola-kontseilua: ikastetxearen kontrol eta kudeaketako partaidetza-organoa. 6.3. Eskola-kontseiluan partaidetza eta eskola-elkartearen kontzientzia-askatasuna. 6.4. Eskola-kontseiluaren araudia Estatuak emandako oinarrizko legerian: LODE *versus* LOCE, eta datorren LOE berria. 6.5. Eskola-kontseiluaren araudia Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan. 6.6. Ikastetxean parte hartzeko eskubidea egikaritzeko zailtasunak. 7. **Ondorioak.**

---

## 1. Sarrera: gaiaren kokapena<sup>1</sup>

Lan honen helburua da eskola-komunitatearen parte-hartzea aztertzea indarrean dagoen hezkuntza-sisteman. Doktrina espezializatuaren arabera<sup>2</sup>, eskola-elkarte edo komunitatearen parte-hartzea ezinbesteko elementua da hezkuntza-sistemak dituen helburuak lortzeko; kalitatezko hezkuntzaren adierazgarri ere bada. Hain zuzen, gure aztergaia parte-hartzea hezkuntza-sisteman go da. Azterketa hau, noski, ikuspuntu juridiko batetik egingo dugu.

Oinarrizko azterketa konstituzional batekin batera, kontuan izango dugu, zenbaitetan, azterketarako ikuspuntu berezi bat: kontzientzia-askatasunarena. Izan ere, harreman estua dago hezkuntzaren eremuaren eta kontzientzia-askatasunaren garapenaren artean<sup>3</sup>. Hezkuntza-sistema, kontzientzia-askatasunaren ikuspuntutik, eremu egokia da eduki intelektual eta metodologikoekin batera, eduki axiologikoak, balioak

irakatsi eta ikasteko; eta balio horiek eragina izan dezakete hezkuntza-eremuan partaide diren subjektuen kontzientzia-askatasunarekin erlazionatuta dauden gaietan.

Hezkuntza-sistemaren eremuan aitortzen diren oinarrizko eskubideen artean, azpimarratzekoak dira hezkuntza-eskubidea eta irakaskuntza-askatasuna; esan ohi da hauek direla hezkuntza-sistemako oinarrizko eskubideen artean, sistemaren zutabe. Modu berean, aipatu dugun ikuspuntu kualifikatutik, oinarrizko eskubide hauek izan daitezke kontzientzia-askatasunaren proiektio. Alegia, hezkuntza-eskubideak, Espainiako Konstituzioko (aurrerantzean EK) 27.1 art., eta bere helburu den nortasunaren garapen libreak (EK-ko 27.2 art.), lotura estua dute kontzientzia-askatasunarekin (EK-ko 16 art.). Izan ere, hezkuntzaren bitartez, gizabanakoak –sarritan, adingabeak– jaso ahal izango ditu, askatasunezko eremu batean, bere identitatea eratuko duten ideia, sineste edo uste sendoak.

Ildo berean, irakaskuntza-askatasunak (EK-ko 27.1 art.), ahalmeneko du irakaskuntzaren bitartez modu bateko edo besteko ideia, sineste edo uste sendoen igorpena. Irakaskuntza-jarduera, subjektu desberdinen bitartez gauza daiteke. Gurasoei seme-alaben heziketa hautatzeko eskubidea aitortzen zaie; batetik, beren sinesmenen araberrako heziketa erlijioso edo morala aukeratu ahal izango dute (EK-ko 27.3 art.); baita mota bateko edo besteko ikastetxea ere: publiko nahiz pribatua. Irakasleek, katedra-askatasuna dela medio (EK-ko 20.1.c art.), beren irakaskuntza-jarduera bidera dezakete, muga batzuen barruan, beren sineste edo uste sendoen arabera. Ikastetxeetako titularrek, modu bateko edo besteko ikastetxeak era ditzakete, ideario edo hezkuntza-proiektu propio batekin (EK-ko 27.6 art.); ikastetxe pribatuek bidera dezakete bertako irakaskuntza-jarduera, ikastetxearen adierazgarri diren balio batzuen ildotik.

Aipatu ditugun eskubideekin batera, EKn bertan, aitortzen dira ere hezkuntzan parte-hartzeko eskubideak, 27.5 eta 27.7 artikuluetan. Gure planteamenduaren arabera, parte-hartzeko eskubide hauek ere badute zer esanik hezkuntza-eremuan jarduten duten subjektuen kontzientzia-askatasunaren

- 
1. Artikulu honek *La participación en el sistema educativo. Un estudio desde la perspectiva de la libertad de conciencia* izenburupean, 2005eko otsailaren 10ean, Donostiako Zuzenbide Fakultatean defenditu nuen doktore tesian dauka oinarria. Zuzendaria Adoración Castro Jover izan zen, Estatuko Zuzenbide Eliztarreko katedraduna.
  2. Besteak beste, CODINA VALERO, M. *La participación: marco normativo*, 1. arg., Granada: Codapa, 1997. Colección de materiales de formación y consulta para consejeros y consejeras escolares, 1. zkia.; 75 or. FERNÁNDEZ ENGUIA, M. *La profesión docente y la comunidad escolar: crónica de un desencuentro*, 1. arg., Madril: Morata/Paideia, 1993. GIL VILLA, F. *La participación democrática en los centros de enseñanza no universitarios*, 1. arg., Madril: CIDE, Ministerio de Educación y Ciencia, 1995; 28. or. SAN FABIÁN MAROTO, JL. "Participar más y mejor". In: *Cuadernos de Pedagogía*, 224. zkia. SARASÚA, A.; ESTEFANÍA, J.L. "Proyecto educativo de centro y participación educativa". In: *Participación, autonomía y dirección en los centros educativos*, Garagorri, X., Municio, P. (koord.) Madril: Escuela Española, 1997; 63, 73-74 orr. SANTOS GUERRA, M.A. *El crisol de la participación*, 1. arg., Málaga: Ediciones Aljibe, 1999.
  3. Aipatzekoa da D. LLAMAZARES FERNÁNDEZ autoreak egin duen aportazioa ordenamendu juridikoa kontzientzia-askatasunaren ikuspuntutik azterzerakoan; *Derecho de la libertad de conciencia*, 2. arg., Madril: Civitas, 2003, 2. liburukia; 161 eta hurrengo orr. Lan honek bi liburuki ditu: lehenak *Libertad de conciencia y laicidad* du azpi-izenburu, eta bigarrenak *Libertad de conciencia, identidad personal y solidaridad*.

egikaritzan. Zenbait kasutan, hezkuntza-eremuan aitortzen diren parte-hartzeko eskubideak kontzientzia-askatasunaren proiektio ere izango dira.

Ikuspegi hau oinarritzat hartuta, gure aztergaia izango da hezkuntzan parte-hartzeko eskubidea eta bere eragina eskola-komunitateko kideen kontzientzia-askatasunaren garapenean. Helburua hori izanik, hasteko aztertuko dugu parte-hartzearen fenomenoaren EKren eremuan: zer nolako tratamendu juridikoa eman zaio parte-hartzeari EK? Ondoren, eta kontuan izanda gure helburua dela parte-hartzea aztertzea hezkuntzaren eremuan, hezkuntza-sistema bera landuko dugu. Amaitzeko, hezkuntza-eremuko parte-hartze eskubidea aztertuko dugu; hasteko, kategoria juridikoa bera, eta ondoren eskubidearen erregulazioaren gorabeherak, azken urteotan gertatu diren lege aldaketekin.

## 2. Parte-hartzea EKren eremuan

Hasteko, kontuan izatekoa da EK askotan agertzen den hitza dela parte-hartzearena, eta ez beti ondorio juridiko berdinekin. Gure zeregina izan da parte-hartze horren izaera juridikoa zein den aztertzea. Izan ere, agerian gelditzen da EK-ko parte-hartzearen adierazpen guztiek ez dutela izaera juridiko berbera.

### 2.1. Parte-hartzea, EK aitortutako printzipio juridiko

Doktrinaren gehiengoak adierazitako ildo berean<sup>4</sup>, gure azterlanean ere kontsideratu dugu

EK-ko 9.2 artikuluan parte-hartzeari egiten zaion adierazpenean, Konstituzioan aitortutako printzipio juridiko bat dagoela. Bere egitura, edukia, hala nola kokapen sistematikoa kontuan hartuta, arau mota desberdinen artean, printzipioarena da ondoen egokitzen zaion kategoria juridikoa 9.2an jasotako parte-hartzeari<sup>5</sup>.

Artikulu honetan, botere publikoei zuzendua dagoen mandatu bat jasotzen da<sup>6</sup>. Doktrinaren gehiengoak dio EK-ko 9.2 art.ak, bere baitan, zuzenbide formula trinko bat jasotzen duela, erregela juridikoen muien edo iturri dena. Printzipio hau EKren barrena zehaztuz joango da, besteak beste, aitortzen diren parte-hartzeko hainbat eskubidetan<sup>7</sup>.

EK-ko 9.2ko parte-hartzearen printzipioak eraginkortasun juridiko positiboa duela adierazi ohi da. Funtzio informatzailea dagokio nagusiki, ordenamendu juridikoa integratu eta interpretatzeko. Doktrinaren atal batentzat, printzipio honek arau-proiektioa ere eduki dezake legegilearen eskutik, eta, ildo horretatik, iturri subsidiario gisa, epailearen eskutik printzipio honetatik ondorioztatu ahal izango da arau zehatz bat, kasu konkretu bati begira eta arau aplikagarririk ez dagoenerako<sup>8</sup>.

Aldi berean, printzipio honek eduki dezake ere eraginkortasun juridiko negatiboa, aitortu ohi zaion indar derogatzailea dela eta. Horren arabera, eskatu ahal izango da, parte-hartzea ezintzen duen arau bat konstituzio-kontrakoa dela adieraztea<sup>9</sup>.

- ARAGÓN, M. "La eficacia jurídica del Principio democrático". In: *Revista Española de Derecho Constitucional*, 24. zkia., 8. urtea, iraila-abendua 1988; 19. or.; ARIÑO ORTIZ, G. "Una reforma pendiente: participación". In: *Revista internacional de ciencias administrativas*, 3. zkia., 1983; 259. or. BAS-SOLS COMA, M. "Los principios del Estado de Derecho y su aplicación". In: *Revista de Administración Pública*, 187. zkia., 1978; GARCÍA DE ENTERRÍA, E. *Curso de Derecho Administrativo, vol II, 2. arg.*, Madril: Civitas, 1990; 73. or.; FONT I LLOVET, T. "Algunas funciones de la idea de participación". In: *Revista de Derecho Administrativo*, 45. zkia., 1985; 255. or.; PÉREZ MORENO, A. "Crisis de la participación administrativa". In: *Revista de Administración Pública*, 119. zkia., 1989; 118. or.; SÁNCHEZ BLANCO, A. "La participación como coadyuvante del Estado social y democrático de Derecho". In: *Revista de Administración Pública*, 119. zkia., 1989; 134. or.; SÁNCHEZ MORÓN, M. *La participación del ciudadano en la Administración pública*, 1. arg., Madril: Estudios Constitucionales, 1980; 93. or. Egile berarena: "El principio de participación en la Constitución Española". In: *Revista de Administración Pública*, 89. zkia., 1979; 174. or.
- SÁNCHEZ MORÓN, M. "El principio...", op cit.; 188. or. Arau juridikoen bereizketa hirukoitzari buruz, *balio, printzipio eta erregelen artekoa*, ikus ALEXU, R. *Teoría de los derechos fundamentales*, 2. arg., Madril: Centro de Estudios Constitucionales, 2001; ARAGÓN, M. *Constitución y Democracia*, 1. arg. 1989, birrargaritaztea 1990, Madril: Tecnos, 1989. PAREJO ALFONSO, L. *Constitución y valores del ordenamiento*, 1. arg., Madril: Centro de Estudios Ramón Areces, 1990; PECES BARBA, G. *Los valores superiores*. Madril: Tecnos, 1984; PEREZ LUÑO, A.E. *Derecho humanos. Estado de Derecho y Constitución*, 5. arg., Madril: Tecnos, 1993.
- 9.2 art: "**Botere publikoen egitekoa da bideak jartzea norbanakoen nahiz taldeen askatasuna eta berdintasuna bene-benetakoak izan daitezen; askatasun eta berdintasun xede hori galarazten edo osotara garatzea zailtzen duten oztopoak kentzea, eta heritar guztiei aukera egokia ematea bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean parte hartzeko**". Azpimarratutakoa gurea da. Lan honetan jasotzen diren EKren euskarazko aipamenak EHUko Zuzenbideko Euskararen Mintegiak egindako itzulpenaren atalak dira.
- EK-ko artikulak aztertuta, ikusten dugu behin baino gehiagotan jasotzen dela parte-hartzea; esaterako 23, 27.5, 27.7, 51.2, 105, 129.1, 131 artikuluetan. Doktrinak kontsideratzen du artikulu hauetan zehaztu egiten dela EK-ko 9.2 art. an egiten den parte-hartzearen aldeko aitortpen orokorra. Alegia, erregela konkretu horiek direla 9.2ko printzipio orokorraren zehaztapen. Aipaturiko artikulu horien artean, batzuk, esaterako 23, 27.5, 27.7 artikuluek, parte-hartzeko eskubideak aitortzen dituzte. Espresuki EKn positibizatu gabe dauden printzipioen eraketa doktrina eta jurisprudentziaren esku egongo da; hauek Konstituzioaren erregelatan oinarritutako printzipioak ondorioztatu dituzte. Aldi berean, printzipio horiek aplikatuta, erregela juridiko berriak ondorioztatu ahal izango dira kasu konkretuari begira; kontuan hartuko dira ordenamendua interpretatzeko ere. Gai hauek landuz, FREIXES, T. eta beste. "Los valores y los principios en la interpretación constitucional". In: *Revista Española de Derecho Constitucional*, 35. zkia., maiatza-abuztua, 1992; 102. or. ARAGÓN, M. op cit., 65 eta hurrengo orr.
- PAREJO ALFONSO, L. *Constitución y...*, op cit., 144. or.; PECES-BARBA, G. *Los valores superiores*, op cit; 99-103 orr.
- SÁNCHEZ MORÓN, M. "El principio...", op cit.; 189. or. Autore honek dio: "*si se trata de simples normas de aplicación directa que no recogen el principio participativo, se podrán declarar anticonstitucionales sólo si precluyesen una futura reforma en sentido participativo*". PRIETO SANCHÍS, L. "Los valores superiores del ordenamiento jurídico y el Tribunal Constitucional". In: *Revista del Poder judicial*, 11. zkia., 1984. Autore honek Auzitegi Konstituzionalaren epai (aurrerantzean AKE) bat aipatzen du, 1981eko otsailaren 2koa; AK-k Konstituzio kontrako helegite batean, 1. oinarri juridikoan, adierazten du: "*allí donde la oposición entre las leyes anteriores y los principios generales plasmados en la Constitución sea irreductible, tales principios, en cuanto forman parte de la CE, participan de la fuerza derogatoria de la misma*".

Parte-hartzearen printzipioa, lehen mailan, printzipio estruktural moduan kalifikatu ohi da<sup>10</sup>. Izan ere, printzipio hau aplikagarri da, batez ere, organizazio publiko nahiz pribatuen egituren antolaketan, hala nola beraien funtzionamendu arauetan. Baina, aldi berean, kausazko erlazio bat dago, parte-hartzea bideratzen duten egiturak ezarri eta helburu material deitu ohi zaien horiek lortzearen artean. Alegia, egitura parte-hartzaileak egoteak bidera ditzake eremu ireki eta pluralak; hain zuzen, hau da eremu egokia eskubide eta askatasunak modu eraginkorrean egikaritzeko. Planteamendu honi lotuta, parte-hartzearen printzipioa printzipio material bat ere bada.

## 2.2. Parte-hartzearen printzipioa eta bere lotura sistemaren oinarri diren balio gorenekin eta Estatu-ereduarekin

Parte-hartzea –EK-ko 9.2 artikulua eremuan– printzipiotzat kalifikatu ondoren, kontuan hartu behar da Konstituzio-sistemaren parte dela. Alegia, sistema hau eratzen duten oinarriko elementuekin lotura estuan dago. Horien artean, guretzat garrantzi berezikoak dira EK-ko 1.1 artikuluan jasotako balio gorenak eta Estatu-eredua eratzen duten printzipioak. EK-ko 1.1 artikuluan adierazten den moduan, Espainiako Estatu zuzenbidezko estatu sozial eta demokratiko moduan eratzen da; balio gorentzat hartuko ditu askatasuna, justizia, berdintasuna eta pluraltasuna.

Izan ere, demokratikoa den Estatu batek –subirotasuna herriarengan edukita<sup>11</sup>– berarekin ekartzen du herritarren parte-hartzea boterearen kudeaketan; horretarako, dagozkion ordezkari politikoak hautatuko dira hauteskundeetan. Dena den, demokratikoaz gain soziala den Estatu baten eremuan, herritarren parte hartzeko aukera ezin da mugatu soilik hauteskunde politikoen eremura. Nahitaezkoa da botere publikoek, beraien aldetik, herritarren parte-hartzea erraztea, bideratzea, bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean ere. Hala adierazten da EK-ko 9.2 artikuluan *in fine*<sup>12</sup>. Herritarren parte-hartzearen bitartez, loturak eratzen dira subiranotasunaren jabe diren herritarren eta boterea egikaritzen duten instantzia publikoen artean. Lotura horrek bidera

dezake sistema demokratikoaren sendotzea, hala nola boterearen legitimotasuna herritarrekiko.

Modu berean, parte-hartzearen printzipioa, EK-ko 1.1 artikuluan jasotako ordenamenduko balio goren zehaztapena ere bada. Alegia, parte hartzeko bide egokiak herritarren esku jartzeak ahalmen dezake gizartean dauden aukera legitimo anitzen adierazpena. Ezinbestekoa da adierazpen anitz horiek kontuan hartzea, eta sistemaren antolaketan dagokien garrantzia eskaintzea. Horrela, eremu plural batean, ahalmen gorenaren askatasunaren balioa, berdintasuneko egoeran gertatzea denentzako; egoera honetan bideratu ahal izango da EK-ko 1.1eko justiziaren balioa.

Beraz, EK-ko 9.2 artikuluan jasotako parte-hartzearen printzipioa sistemaren oinarri den elementuekin lotura estuan dago. Hori horrela izanik, printzipio hori, bide batez, proiektatu egiten da Konstituzioko araudian. Gure lanean, azterketa mugatu dugu hezkuntzaren eremura; izan ere, bertan dago gure azterketa objektua. Horregatik dagokigu hezkuntza-sistemaren azterketa.

## 3. Hezkuntza-sistema

### 3.1. Hezkuntza-sistemaren oinarriko araudia

Hezkuntza-ordenamendu edo hezkuntza-kode deituko diogu hezkuntza-sistema arautzen duen arau multzoari. Horiek *azpi-ordenamendu* bat eratuko dute ordenamendu juridiko orokorraren barnean, eta EK da ordenamendu orokor horren arau goren. EKtik azpimarratu beharreko artikulua 27.a da, bertan jasotzen baitira hezkuntza-sistemaren ardatzak. Artikulu hau interpretatu beharko da EKn sistema juridikoa eratzen duten oinarriko elementuen arabera, eta horien artean azpimarratzeko artikulua dira 1.1, 2, 9.2, 10, 14, 16, 148, 149, besteak beste. Artikulu hauetatik ondoriozta daitezke sistema konstituzionala eratzen duten elementuak.

EK-ko 27. artikulua garatzen duen oinarriko legeria, lege organiko bidez arautu da. Indarrean dauden artean, hasteko LODE<sup>13</sup> da aipatzekoa, Gobernu sozialistaren lehenengo garaian emandakoa. Gobernu berdinen

10. ARAGÓN, M, *Constitución y Democracia*, op cit., 106 eta hurrengo orr., lantzen du demokrazia printzipio moduan, bere edukia: materiala eta estrukturala.
11. EK-ko 1.2 artikuluan adierazten da: “*Subiranotasun nazionala Espainiako herriari dagokio, eta harengandik datozkio Estatuari botereak*”. SÁNCHEZ MORONEK, “El principio...” op cit., 178. orr. eta hurrengoetan, parte-hartzearen eta subirotasun popularraren arteko harremana azpimarratzen du. ARAGÓN, M. *Constitución y democracia*, op cit., 25 eta hurrengo orrialdeetan, Konstituzioa, subirotasuna eta demokrazia lantzen ditu.
12. EK-ko 9.2an, zera esaten da: “*Botere publikoen egitekoa da (...) herritar guztiei aukera egokia ematea bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean parte hartzeko*”.
13. Ley Orgánica del Derecho a la Educación, 8/1985 Lege Organikoa, uztailaren 3koa, BOE zk. 159, 1985-07-04.
14. Ley Orgánica de Ordenación General del Sistema Educativo, 1/1990 Lege Organikoa, urriaren 3koa, BOE zk. 128, 1990-10-04.
15. Ley Orgánica de Participación, Evaluación y Gobierno de Centros Docentes, 9/1995 Lege Organikoa, azaroaren 20koa, BOE zk. 278, 1995-11-21.

iniziatibarekin, LOGSE<sup>14</sup> eta LOPEG<sup>15</sup> onetsi ziren hezkuntza-sistema arautzeko. Gobernu popularraren garaian, LOCE<sup>16</sup> legearen bitartez, alderdi honek hezkuntza-sistemari ikuspegi propio bat eman nahi izan zion; horrela, LODE aldatu, eta ia ezerezean utzi zituen LOGSE eta LOPEG.

LOCE ez zen iritsi bere osotasunean aplikatzera; izan ere, Lege honetako zenbait neurriren aplikazioa ez zen bapatekoa izan; aplikazio progresibo bat aurreikusi zen. 2004ko martxoaren 14ko hauteskundeak eta gero, Parlamentu zentrolean Alderdi Popularrak galdu egin zuen zeukan gehiengoa. Berrito alderdi sozialista boterean egonda, hartu ziren neurrien artean lehenetarikoa izan zen LOCEren aplikazioa arautzen zuen Errege Dekretua aldatzea; Partidu Popularrak aurreikusi zituen epeak bi ikasturtez atzeratu ziren, 2006-2007 ikasturte arte. Gobernu sozialistak adierazi zuen moduan, aipaturiko ikasturte hori iristerako LOCE aldatzeko asmoa zegoen.

Helburu horrekin, 2004ko irailean Hezkuntza Ministerioak duen web orrialdean *propuestas para el debate* izena zuen dokumentu bat aurkeztu zen, zegokion parte hartzeko foroarekin. Bertan jasotzen ziren Gobernu sozialistak hezkuntza-sistemaren egoerari buruz egindako analisi eta diagnostikoak; bide batez, konponbiderako proposamenak aurkeztu ziren, gizartearen partaidetza bilatuz zegokion debatean<sup>17</sup>. Sei hilabete eta gero, 2005eko martxoaren 30ean, publiko egin zen LOE delakoaren aurreproiektua<sup>18</sup>. Gobernuak aurreikusten du 2005-2006 ikasturte hasierarako LOE onetsita izango dela lege bezala.

LOE aurreproiektua dagoen bezala lege izatera iritsiko balitz, bere helburuen artean aurkitzen da –hala adierazten da zio-azalpenean– hezkuntza-kodearen oinarritzko legeria argitzea eta sinplifikatzea; izan ere, gaur egun nahasketa nabaria dago indarrean dauden lege organikoen artean. LOErekin derogata geldituko lirateke LOGSE eta LOPEG –neurri handi batean hala daude LOCEz geroztik–, eta baita LOCE bera ere. Horrela, hezkuntza-sistemaren ardatzak –EK-ko araudiarekin batera– LODE eta LOEn arautuko

lirateke. Honek ez du esan nahi LOEek hezkuntza-sistema hutsetik hasita arautzen duenik; bertan jasotzen ditu aurreko oinarritzko legeriak egindako aportazioak, betiere adostasunez errotuta daudenak; Gobernuaren iritziz aldatu beharreko zenbait gai ere aldatzen dira, nagusiki LOCEn desadostasun nabariarekin araututakoak<sup>19</sup>.

Lege organiko aniztasun honek agerian uzten du hezkuntza-sistemaren eremuan zenbait gai adostu gabe daudela. Horien artean aurkitzen da parte hartzeko eskubidearen erregimen juridikoa. Erregimen honen ardatz nagusiak aztertu baino lehen, garrantzitsua da zehaztea zeintzuk diren indarrean dagoen hezkuntza-sistemaren oinarritzko elementuak.

Araudiaren interpretazio egoki bat egiteko, ezinbestekoa da Auzitegi Konstituzionalak emandako epaiak kontuan hartzea. Bereziki bi aipatuko ditugu: AKE 5/1981 otsailaren 13koa eta AKE 77/1985 ekainaren 27koa<sup>20</sup>.

## 3.2. Hezkuntza-sistemaren ardatzak EKren arabera

Hezkuntza-sistemaren ardatzak nolabait sistematizatzeko kontuan izango dugu EK-ko 27. artikulua; bertatik ondoriozta daitezke hezkuntza-sistemaren oinarritzkoak diren zenbait elementu.

Besteak beste, kontuan izango dugu EK-ko 27.1 artikuluan aitortzen direla hezkuntza-eskubidea eta irakasteko askatasuna; izan ere, horiek dira hezkuntza-sistemako oinarritzko eskubide propioenak: pertsona orok duen hezkuntza jasotzeko eskubidea, eta irakasteko askatasuna, dituen adierazpen desberdinetan. Betiere, kontuan hartu beharko da irakaskuntza orok helburu izan beharko duela pertsonaren nortasuna orotara garatzea (EK-ko 27.2 art.). Helburu hori lortzeko, ezinbestekotzat jotzen da hezkuntza integrala edo erabatekoa izatea, baita balioetan ere.

Hezkuntza-sistemaren eraketarako, EK-k botere publikoentzako obligazio eta eskuduntza

16. Ley Orgánica de Calidad de la Enseñanza, 10/2002 Lege Organikoa, abenduaren 23koa, BOE zk 307, 2002-12-24.

17. Vide. <http://debateeducativo.mec.es>

18. Ley Orgánica de Educación aurreproiektua Hezkuntza Ministerioak duen web orrialdean argitaratu da: <http://www.mec.es>

19. Esaterako, erlijioaren irakaskuntza, ikastetxeen gobernu-organoen arauketa, DBHrako ezarritako itinerarioen arauketa, Batxilergoko titulua lortzeko froga orokor bat ezartzea.

20. Konstituzioa eta gero, EK-ko 27. artikulua garatu zuen lehenengo lege organikoa, LOECE deiturikoa izan zen; 5/1980 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, UCE Gobernu garaian emandakoa. Lege honen kontra Konstituzio kontrako helegite bat aurkeztu zen, eta horri erantzunez eman zuen AK-k aipaturiko epaia, AKE 5/1981. AKE 77/1985 Epaiak ebatzi zuen LODEri tarteratu zitzaion helegitea, Konstituzio kontrakotasuneko aurreiazko helegitea. Bi epai hauek garrantzi berezikoak dira; izan ere, AK-k epai hauetan emandako doktrinak bideratu egin zuen ondoren gertatu zen hezkuntza-sistemaren egituraketa, gatazkatsu ziren zenbait gaien irtenbidea bideratuz. Epai hauetako doktrina aplikagarria da gaur egun. SATORRAS FIORETTI, R.M<sup>a</sup>. *La libertad de enseñanza en la Constitución Española*, 1. arg., Madril: Marcial Pons, 1998. Autore honek bere lanean aztertzen du EK-ko 27. artikulua aurrera ateratzeko egin ziren lanak, eta baita artikulua honen inguruan Auzitegi Konstituzionalak emandako epaiak.

garrantzitsuak jasotzen ditu 27.5, 27.8, 149.1.30 artikuluetan. Hezkuntza lehentasuna duen zerbitzu publiko bat dela kontsideratzeak berarekin dakar botere publikoak izatea zerbitzu horren azken erantzule. Beraiei dagokie hezkuntza-sistemaren programazio orokorra, ikastetxeak sortzea, sistemaren homologazioa eta ikuskaritza, hala nola EK-ko 27. artikulua garatzen duten oinarritzko arauak ematea.

EK-ko 27.5 artikulua kontuan hartuta, botere publikoek bermatu behar dute guztien hezkuntza-eskubidea, eta horretarako irakaskuntzaren programazio orokorra dagokie. Zeregin horretan, EK-ko 27.5 artikulua arabera, ez daude bakarrik. Izan ere, botere publikoei beren zereginean badagokie, baita, hezkuntza eremuan zerikusia duten sektore guztien benetako parte-hartzea bermatzea.

EK-ko 27.5ean bertan adierazten da ere botere publikoek bermatuko dutela hezkuntza-eskubidea ikastetxeak eratuz; jarduera honetan ere ez dira subjektu aktibo bakarrik; izan ere, EK-ko 27.6 artikuluan ikastetxeak eratzeko eskubidea aitortzen zaie pertsona pribatuei ere. Indarrean dagoen legeriak, LODEtik hasita, adierazten du hezkuntza-sistema misto edo duala dela; beraz, irakaskuntza publikoarekin batera, irakaskuntza pribatuak ere badu bere lekua.

Kontuan hartzekoa da hezkuntza-sistemaren eraketan, eragile publikoekin batera, eragile pribatuak hor daudela. Izan ere, parte-hartzearen printzipioa oinarritzko elementua da, nahiz irakaskuntzaren programazio orokorrean (EK-ko 27.5 art.), nahiz ikastetxeen kontrol eta kudeaketan (EK-ko 27.7 art.).

Eragile publikoen artean ere, kontuan hartzekoa da indarrean dagoen Estatu autonomikoa dela; beraz, eskuduntza-banaketa emango da Estatuaren eta autonomia erkidegoen artean. Bide batez, administrazio bakoitzaren

eremuan deszentralizazioaren printzipioa ere aplikagarria da. Hezkuntza-kodean, bereziki LOGSEtik hasita, ikastetxeei autonomia aitortzen zaie araudi orokorra beren eremura egokitzeko. Ikastetxeen autonomia ere bada indarrean dagoen hezkuntza-sistemaren oinarritzko elementu<sup>21</sup>.

Aipatutako elementu horietatik, lan honetan batzuk azpimarratuko ditugu.

### 3.2.1. Pertsona osotara garatzea, hezkuntzaren helburu

EK-ko 27.2 artikulua arabera, hezkuntzaren helburua izango da pertsonaren nortasuna osotara garatzea; betiere, errespetatuz bizikidetzaren printzipio demokratikoak, hala nola oinarritzko eskubide eta askatasunak<sup>22</sup>. Batzuek diote hemen jasotzen duela EK-k bere *hezkuntza-idearioa*. Bertatik ondoriozta daiteke hezkuntzak dimentsio bikoitza duela: indibiduala batetik eta komunitario edo soziala, bestetik.

Alegia, hezkuntza-sistemaren eremuan, ikasleria heziko da bere banakotasunean, norberaren nortasuna, identitatea osotara garatzeko. Betiere, garapen indibidual honek bateragarri izan beharko du gizarte-sistema zehatz batekin: gure kasuan, bizikidetzaren printzipio demokratikoen eta oinarritzko eskubideen markatutakoa.

Jakina da hezkuntza bide egokia dela giza nortasunaren garapenarekin batera gizarte sistema zehatz bat iraurarazi edo aldarazteko. Hezkuntza bada botere-tresna eta ideologia igorle ere. Horren adierazgarri dira historian zehar eman diren hainbat hezkuntza-sistema, garaiko printzipio politiko, erlijioso eta ideologikoei erabat lotutakoak, eta hauen igorpenaren alde zuzendutakoak<sup>23</sup>.

EKren eremuan, 27.2ko hezkuntzaren helburua bat dator EK-ko 10.1 artikulua ereduarekin<sup>24</sup>. EK-ko 10.1 artikulua arabera,

21. Hala agertzen da LOGSE, LOPEG, LOCE eta LOE aurreproiektuan. Dena den, sarritan adierazten du doktrinak autonomia bene-benetakoa izateko gehiegi arautzen dela. Izan ere, kontraesana nabari da legeetan agertzen diren autonomiaren aldeko printzipio orokorren eta kontrako norabidean doan mugagabeko joera arautzailearen artean. Ildo honetan, BOLÍVAR BOTÍA, A. "La autonomía de centros escolares en España: entre declaraciones discursivas y prácticas sobrerreguladas". In: *Revista de educación*, 333 zkia., 2004; 91-116 orr.
22. EKren 27.2 artikulua idazkera bat dator gai honen inguruan indarrean dagoen nazioarteko araudiarekin. Esaterako, 1948ko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsal 26. artikuluan adierazten du: "toda persona tiene derecho a la educación (...)", eta "la educación tendrá por objeto el pleno desarrollo de la personalidad humana y el fortalecimiento del respeto a los derechos humanos y a las libertades fundamentales; favorecerá la comprensión, la tolerancia y la amistad entre todas las naciones y todos los grupos étnicos o religiosos; y promoverá el desarrollo de las actividades de las Naciones Unidas para el mantenimiento de la paz". Ildo berean dago 1966ean Nazio Batuek onetsitako Nazioarteko Ituna, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturei buruzkoa, 13. artikuluan. Aipatzekoa da ere 1960ko abenduaren 14ko Nazio Batuen Erakundearen Konbentzioa, irakaskuntzaren eremuan diskriminazioaren kontra; 5.1 artikuluan adierazten da: "Los Estados Partes en la presente Convención convienen: a) En que la educación debe tender al pleno desenvolvimiento de la personalidad humana y a reforzar el respeto de los derechos humanos y de las libertades fundamentales, y que debe fomentar la comprensión, la tolerancia y la amistad entre todas las naciones y todos los grupos raciales o religiosos, y el desarrollo de las actividades de las Naciones Unidas para el mantenimiento de la paz". EK-ko 10.2 artikulua adierazten duenaren arabera, arau hauek guztiak kontuan hartzekoak dira EKn aitortzen diren eskubideak interpretatzeko.
23. Gai hau landuz, aipatzekoa da PUELLES BENÍTEZ, M. *Educación e ideología en la España contemporánea*, 4. arg., Madril: Tecnos, 1999.
24. EK 10.1 artikulua: "Pertsonaren duintasuna, berez dagozkion eskubide bortxaezinak, nortasunaren garapen libre, legearen errespetua eta beste eskubideen errespetua oinarri dituzte ordena politikoak eta gizarteko bakeak".

ordena politiko eta gizarteko bakearen oinarri dira pertsonaren duintasuna eta nortasunaren garapen librea, betiere legea eta gainontzekoen eskubideak errespetatuz. EK-ko 10.1 artikulutik ondoriozta daiteke ordenamenduaren beste balore nagusietariko bat: pertsonaren duintasuna<sup>25</sup>. Pertsonaren garrantzia azpimarratzen da sistemaren oinarri bezala; betiere, garapen hori bateragarri eginez legeekin eta gainontzekoen eskubideekin<sup>26</sup>.

EK-ko 27. artikulua garatzen duen oinarriko legerian agertzen den moduan, helburu hau lortzeko hezkuntzak integrala izan behar du; pertsonaren garapena osotasunean landu beharko da, modu integralean bideratuz bere gaitasun guztiak. Horretarako, ikastetxeetan landuko diren edukiak askotarikoak izango dira: instrumentalak, linguistikoak, zientifikoak, teknologikoak, estetikoak hala nola eduki axiologikoak edo balioak lantzen dituztenak. Azpimarratu behar dugu eskolako edukiak lantzerakoan, jakintzekin batera, landu beharrekoak direla bizitzako eremu guzietan agertzen diren balioak. Hala adierazi da zuzenean hezkuntza-araudian<sup>27</sup>.

### 3.2.2. Balioen igorpena hezkuntzan

Balio-igorpena, kontuan hartuta hezkuntza-sistemaren araudia, modu desberdinetan bideratu da orain arte. Batetik, aipatzekoa da zeharka edo modu transbertsanean egiten den balio-lanketa. Alegia, administrazio sozialistaren garaian, LOGSEren haritik, Estatu zentralak arautu zuen zeintzuk izango ziren Estatu mailan irakatsi beharreko eduki minimo eta komunak. Berria izan zena zen hirutan sistematizatzea eduki hauek: a) irakatsi beharreko kontzeptuak, b) irakatsi beharreko prozedurak, eta c) igorri/landu beharreko jarrerak.

LOGSEren testuinguruan kontsideratu zen hezkuntzaren eremuan balioen lanketa ez

zegokiola irakasgai edo asignatura bakar bati, baizik eta irakasgai guztietan landu beharrekoak zirela. Horrela, irakasgai guztietako ikasgaietan zehaztu ziren, materia aztertu ahala, landu beharreko balioak. Honi deitu zizaion balioak modu trasbertsanean edo zeharka lantzea; materia guztiak *zeharkatuko* dituzten balioen bitartez.

Balio hauek zeintzuk diren zehaztea, eskudun diren administrazioen esku egongo da: lehen mailan, Gobernu zentrala, eta, garapenean, eskudunak diren autonomia erkidegoak –2000. urtetik aurrera denak, Ceuta eta Melilla izan ezik<sup>28</sup>–. LOGSE ondoren egindako ikasketa-curriculum-ak ikusten baditugu, agerian gelditzen da edukien sistematizazio hau, bai Estatu zentralak arautako eduki *minimo* edo komunetan, bai –gure kasuan– Euskal Autonomia Erkidegoak (aurrerantzean EAE) egindako garapenean. Noski, Estatu laiko baten eremuan, administrazio eskudunek onetsitako curriculum-etan jasotako balioek izaera *zibiko* eta *akonfesionala* izango dute. Balio horien artean aurkitzen dira tolerantzia, hizkuntza eta kultura aniztasuna, herrien arteko bakea, solidaritatea eta lankidetzeta, norberaren askatasuna, erantzukizun soziala eta sexuen arteko berdintasuna, besteak beste<sup>29</sup>.

LOGSE onetsi zenetik hamabost urte igaro dira, eta badirudi argi dagoela bide hau ez dela nahikoa izan ikasleriari igortzeko zenbait eduki eta balio; horien artean, erregimen demokratikoaren oinarriko eduki eta balioak, bere berezitasunak eta funtzionamendua. Gabezia hori dela eta, LOE aurreproiektuak irakasgai berri baten sorrera aurreikusten du: *educación para la ciudadanía* delakoa. Bertan, sistema demokratiko batean herritar izatearen zentzua izango da aztergai: bere esanahia, berezitasunak, bizikidetzarako balioak eta jarrerak, besteak beste.

Aipaturiko bide hauekin batera, posible da baloreak beste irakasgai batzuen bitartez landu eta igortzea. Horien artean dago erlijioaren

25. Aipatzekoa da Auzitegi Konstituzionalak behin baino gehiagotan kalifikatu duela pertsonaren duintasuna sistemaren balio nagusizat. Aipatzekoak dira AKE 53/1985 apirilaren 11koa eta AKE 337/1994 abenduaren 23koa. Doktrinari dagokionez, aipatzekoak dira: PAREJO ALFONSO, L. *Constitución y valores del ordenamiento*, 1. arg. Madril: Centro de Estudios Ramón Areces, 1990. Autore berarena, "Los valores en la jurisprudencia del TC". In: *Libro homenaje al Prof. J.L. Villar Palasí*. Madril: Civitas, 1989. PECES BARBA, G. *Los valores superiores*. Madril: Tecnos, 1984.
26. EK-ko 10.1etik ondorioztatzen du pertsonalismoaren printzipioa sistemaren printzipio gorenaren dela LLAMAZARES FERNÁNDEZ, D. autoreak. LLAMAZARES FERNÁNDEZ, D. *Derecho de la libertad de conciencia. Libertad de conciencia y laicidad, vol I. 2.* arg., Madril: Civitas, 2002; 271-278 orr.
27. Irakaskuntzaren planteamendu honen oinarria LOGSEn dago. Bertan adierazi zen klasean landu beharreko curriculum-a ez dela mugatu behar eduki intelektualetan oinarritutako ikasketa-plan batera; landu beharrekoak izango dira, kontzeptuekin batera, prozedurak eta jarrerak ere. Planteamendu hau garatuz, aipatzekoak dira Errege Dekretu batzuk, horien artean 1006/1991 eta 1007/1991 ED; bertan jasotzen dira zeintzuk diren Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza irakatsi beharreko eduki minimoak. Oinarri hau kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoak bere curriculum propioak garatu zituen.
28. Kontuan hartzekoa da 2000. urtean amaitu zirela hezkuntza-gaietan emandako transferentziak Gobernu zentraletik zenbait autonomia erkidegotara. Prozesu hau duela hogeitau urte baino gehiago gertatu zen zenbait autonomia erkidegotan; esaterako, Euskal Autonomia Erkidegoa, Katalunia, Galizia eta Andaluziarekin.
29. Balio hauek oinarriko legerian agertzen dira; esaterako, LODE 2. art.an, LOGSE 2.3. art.an eta LOCE 1. art.an. LOE aurreproiektuak, ildo berean, 1. artikuluan jasotzen ditu hezkuntza-sistemaren oinarri diren printzipioak, eta helburuak 2. artikuluan.

irakaskuntza, edo urtetan bere ordezkio izan den etika edo bestelako irakasgaiak. Aipatzekoa da materia honen erregimen juridikoa behin eta berriro aldatu dela, kontu eginda boterean zein alderdi politiko egon den. Alderdi sozialistak LOGSEn agertu zuen bere aukeraren oinarria LOGSEn<sup>30</sup>, eta alderdi popularrak LOCEn<sup>31</sup>. LOEren idazkera kontuan hartuta, badirudi asmoa dela, berriro LOGSEra eta bere garapenezko araudiak ezarritako eredura bueltatzea<sup>32</sup>.

Dena den, balio-igorpenari dagokionez, kontuan izatekoa da, ikastetxe bakoitzak eskainiko duen hezkuntza balioen inguruan, erabat lotuta dagoela ikastetxe horrek egindako balio-hautaketarekin. Balio-hautaketa hau, bide batez, erlazionatuta egongo da ikastetxeak duen izaera edo identitatearekin, esaterako bere izaera publiko edo pribatua, eta pribatua bada bere idearioaren izaera, halakorik baldin badu. Ikastetxe bakoitzaren aukera propioak dokumentu batzutan zehaztuko dira. Horien artean, hezkuntza-proiektua, ikasketa-proiektua, barne erregelamendua, besteak beste<sup>33</sup>;

betiere, ikastetxeari aitortzen zaion pedagogia-autonomiaren baitan.

Adierazi dugun moduan, pedagogia-autonomiarekin batera, indarrean dagoen hezkuntza-sisteman oinarritzko elementua da eskola-elkartearen parte-hartzea ere. Horien arabera, eskola-komunitate bakoitzak, duen autonomiaren eremuan, zehaz dezake zein duen hezkuntza-aukera propioa; aukera hori ikastetxearen hezkuntza-proiektuan adieraziko da.

Lan honi begira, garrantzi bereziko dokumentua da ikastetxeko hezkuntza-proiektua. Izan ere, bertan biltzen dira lan honen giltzarri diren zenbait kontzeptu. Batetik, eskola-elkartearen partaidetza hezkuntza-proiektua egin, onetsi eta aplikatzen; bestetik, hezkuntza-proiektuak adieraziko du zein den ikastetxeak egindako balio-aukera. Aukera honek garrantzia izango du ikastetxean gauzatuko den hezkuntza-irakaskuntza prozesuan, hala nola eraginik eduki dezake eskola-elkarteko kideen kontzientzia-askatasunaren garapenean.

30. LOGSEren II. Xedapen Gehigarrian arautu zen gai hau. LOGSEk, bere garaian, hezkuntza sistema orokorrean arautu zuen; ikasketa mailak zehaztu zituen, hala nola maila bakoitzean aztertu beharreko irakasgaiak zeintzuk ziren. Irakasgai arruntan artean ez zen agertzen erlijioaren irakaskuntza. Gai hau lantzen duen doktrinaren atal batek argi dauka Estatu laiko bateko ikasketa-planetan ezin dela barneratu eduki konfesionala duen materiari; alegia, erlijioa katekesi bezala. Kontsideratzen da erlijioa landu daitekeen eduki bat dela, baina ikuspuntu ez konfesional bat jarraituta. Aipatzekoak dira CUBILLAS RECIO, M. *Enseñanza confesional y cultura religiosa. Estudio jurisprudencial*. Valladolid: Servicio de publicaciones de la Universidad de Valladolid, 1997. Egile berarena, "La enseñanza de la religión en el sistema español y su fundamentación en el derecho de los padres sobre la formación religiosa y moral de sus hijos". In: *Laicidad y libertades. Escritos jurídicos*, 2. zkia., Madril: 2002. LLAMAZARES FERNÁNDEZ, D. *Derecho de la libertad de conciencia. Libertad de conciencia, identidad personal y solidaridad*, 1. arg., Madril: Civitas, 2002; 119 eta hurrengo orrialdeak. Dena den, LOGSEren II. Xedapen Gehigarrian argi adierazten da erlijioaren irakaskuntza bat etorriko zela gai honen inguruan Estatuak Sede Santuarekin hitzartuta zuen Akordioarekin. Izan ere, Estatuak 1979. urtean Sede Santuarekin sinatu zituen lau Akordioen artean batek irakaskuntza eta gai kulturalak arautzen zituen. Akordio honen baitan, Estatuak konpromiso batzuk hartu zituen Sede Santuarekiko. Konpromiso horien ordain dira gaur egungo araudiaren ardatzak. Kontuan hartzekoak dira ere 1992. urtean Estatuak bestelako konfesio erlijioso batzuekin sinatu zituen lankidetzak: Eliza ebanjelikoaren Federazioarekin, Komunitate Israeldarrekin eta Komisio islamiarrekin. Lankidetzak akordio hauetan, Estatuak bere gain hartutako konpromiso horiek ez dira beti berdin gauzatu. EK onartu ondoren egon zen lehenengo Gobernuak, Unión de Centro Democrático, UCDk, modu batean egin zuen; ondoren, Gobernu sozialistak 2438/1994 Errege Dekretuan eta 1992ko aipatutako Akordioetan gauzatu zuen garapen hori. Aipatzekoa da tratua ez dela berbera izan erlijio katolikoaren irakaskuntzaren kasuan, eta gainontzeko akordiodun konfesioen erlijio irakaskuntzaren kasuan.
31. Kontuan izan behar da LOCEn erlijioaren irakaskuntzari tratamendu desberdina eman zitzaioela. LOCEk, gai honetan LOGSE derogatu, berriro arautu zuen irakaskuntza, bertako mailak eta asignaturak arautuz. Asignatura edo irakasgai "berri" bat sortu zuen, *sociedad, cultura y religión* zeritzona; asignatura honek bi aukera izango zituen: konfesionala bata eta ez konfesionala bestea. Aukera hau gogorki kritikatu izan zen; izan ere, asignatura honen bitartez ikasle guztiak erlijioa ikasi beharra zeukaten. Aurreko erregimenean, erlijiorik ikasi nahi ez zuenak, ordezkio beste irakasgai bat zeukan: etika hasiera batean; bestelako irakasgai batzuk LOGSE eta gero. Aukera hau ere ez zen denen gustukoa; izan ere, gizartearen sektore batek ez zuen ulertzen zergatik batzuek erlijioa ikasi nahi izateak, beraiengan eragiten zuen irakasgai bat gehiago ikasteko obligazioa. Sektore honek LOCEren aukeraren aurrean ere arazo larriak ikusi zituen. *Sociedad, cultura y religión* delako irakasgaiaren aukera ez konfesionalaren arauketari, erlijioari ematen zion neurrigabeko garrantzia kritikatu zion. Batetik, ikasketa planetan ikasle guztiak –aukera konfesional eta ez konfesionalak– urtero ikasi beharreko irakasgaiak izan behar; gainera, proposatutako edukia aztertuta, agerian gelditzen zen erlijioa eta ikuspegi erlijiosoak ardatz kontsideratzen zirela gizadiaren historia eta pentsamenduaren eraketan. Bereziki kosmos-ikuspegi erlijiosoak lantzen zen ia ikasturte guztietan; gainontzeko kosmos-ikuspegi ez konfesionalak, esaterako agnostizismoa edo ateismoa, dimentsio minimo batean aztertu eta baloratzen ziren, ikasturte bateko irakasgai baten barruan. Ildo berean, ez zen egoki ikusten Estatu laiko eta demokratiko batean, multikulturalismoa gizartearen errealitate bat izanik, asignatura berri horren aukera konfesionala aukeratzeko zutenek ez aztertzea erlijioak dituen bestelako dimentsioak, hala nola erlijio aniztasuna edo erlijio gabeko kosmos-ikuspegi existentzia eta garrantzia. *Sociedad, cultura y religión* delako asignatura hau, hasiera batean, 05-06 ikasturtean aplikatzekoa zen, LOCEren aplikazio-egutegia arautzen zuen dekretuaren arabera (827/2003 Errege Dekretua, ekainaren 27koa, BOE zk. 154, 2003-06-28). Gobernu aldaketa eta gero, sozialistek, 1318/2004 Errege Dekretuaren bitartez (BOE 2004-05-29), 827/2003 Errege Dekretua aldatu zuten, erlijioa irakasteko bide berriaren aplikazioa 2006-07 ikasturte arte atzeratuz. Ikasturte hau iristen denerako, LOE aurreproiektuan oinarritat hartzen badugu, desagertu egingo da *Sociedad, cultura y religión* deitzen zen irakasgaiak. Bitartean, indarrean jarraitzen du LOCE aurreko araudiak gai honetan, oinarria LOGSEren II. Xedapen Gehigarrian duena.
32. Vide. LOE proiektuaren II. Xedapen Gehigarriaren idazkera, LOGSEren II. Xedapen Gehigarriak zuenaren berdina da. Gaur egun, LOE onetsi eta indarrean sartu arte, erlijioaren irakaskuntzaren erregimen juridikoa nagusiki LOGSEren II. Xedapen Gehigarrian jasotzen da, eta 2438/1994 Errege Dekretuan zein 1979 eta 1992ko lankidetzak akordioetan.
33. Euskal Eskola Publikoaren Legea (aurrerantzean EEPL), 28. artikuluan jasotzen da zein dokumenturen bitartez arau dezakeen ikastetxe bakoitzak bere autonomia-eremua. EEPL Legea 1993koa izanda, LOGSEren planteamenduak Estatu zentralerako araudia baino lehenago garatu zituen. Ikastetxeen autonomia eta eskola-elkartearen partaidetzari dagokionez, Estatu zentralak, LOGSE garatuz, LOPEGen onetsi zituen 1995ean, eta 2002. urte amaieran LOCEk berriro arautu zuen gai hau. Aipatzekoa da 1993ko Euskal Eskola Publikoaren Legeak aukera zabalagoak eskaini dizkiola eskola-autonomiari nahiz eskola-elkartearen parte-hartzeari.



### 3.2.3. Hezkuntza-proiektua: eskola-elkartearen partaidetza ikastetxearen identitatea zehazten

Hezkuntza-proiektua ikastetxearen dokumentu gidaria izango bada, eskola-elkarteak orotara ezagutua eta partekatua izan behar du; ezinbestekoa da proiektua egiterakoan, onesterakoan eta gauzatzekoan eskola-komunitateak parte hartzea.

Izan ere, indarrean dagoen araudiak aukera ematen du ikastetxeak berak, bertan biltzen eskola-elkarte eta eskola-kontseiluaren bitartez, ikastetxearen berezitasunak eta helburuak adierazteko<sup>34</sup>.

Hezkuntza-proiektuak adieraziko dio eskola-elkarte osoari zein den ikastetxe horrek eskainiko duen hezkuntza mota, zeintzuk diren lortu nahi diren helburuak eta zein printzipio edo balioak gidatzen duten ikastetxearen hezkuntza-zeregina. Proiektu honen eraketan, eskola-elkarteak kontuan eduki beharko du ikastetxea kokatuta dagoen ingurua, hala nola bertan biltzen diren familia eta ikasleek beharrak, eta eskolak dituen baliabideak, besteak beste. Hezkuntza-proiektuaren helburuen artean dago ikastetxeak aurrera eramango duen heziketa lana ahalik eta eraginkorra izatea, eta hezkuntza-sistemaren planteamendu orokorrak ikastetxe konkretu baten egoerara egokitu nahiko dira<sup>35</sup>.

Guri dagokigunez, azpimarratuko dugu hezkuntza-proiektuan ikastetxe bakoitzak agerian jartzen duela zeintzuk diren bere identitate-zeinuak; horien artean, zeintzuk diren eskola-komunitateak adostutako balioak. Horren adierazgarri izango da ikastetxearen jarrera, besteak beste ondorengo gaien inguruan: a) tolerantzia eta pertsonetikiko

errespetua, b) sexu, arraza, erlijio, ideologia edo bestelako diskriminazio egoerak, d) etnia, kultura, erlijio, ideologia aniztasuna, e) hizkuntza eta kultura-identitate propioaren babesa eta sustapena, etab.

Gai hauen guztien inguruan egindako aukerak adieraziko dute zein den ikastetxearen barne-pluraltasun maila. Aukera horiek eragina izango dute eskola-komunitateko kide direnen kontzientzia-askatasunaren garapenean ere<sup>36</sup>.

Ikastetxearen hezkuntza-proiektua garatzerakoan, garrantziko ezaugarria da ikastetxearen izaera publiko edo pribatua. Ikastetxe pribatuaren kasuan, idearioa edukitzeak eta honen nolakotasunak baldintzatuko du hezkuntza-proiektuaren balio hautaketa<sup>37</sup>. Izan ere, ideariodun ikastetxe pribatuek, administrazio eskudunak ezarritako curriculum-etako balioak *kualifika* ditzakete beren idearioaren baitan<sup>38</sup>.

Ikastetxe publikoetan, balioen igorpena eta lanketa neutraltasunaren ikuspuntutik egin beharra dago<sup>39</sup>. Honek adierazten du ikastetxe publikoek ezingo dutela inolako ildo ideologiko edo erlijioso zehatzik jarraitu. Ordea, neutraltasuneko jarrera batean oinarrituta, balore batzuk bultzatu edo azpimarra ditzakete, eta beste batzuk arbuia, hezkuntza-proiektuan egindako aukeraren baitan.

Orotara, debekatuta dago mota guztietako ikastetxeetan ikasleria ideologia edo erlijio batean adoktrinatzeari<sup>40</sup>. Errespetatu beharrekoa da adingabearen kontzientzia-askatasuna, hala nola gurasoena, hala badagokio. Ikastetxearen zeregina, baita gurasoena ere, haurra informatzea, bideratzea eta aholkatzea izango da, behar duen heldutasuna lortzen duen bitartean<sup>41</sup>. Haurra ere bada kontzientzia-askatasunaren

34. LOCEko 67-70, 77-78, 81-82 art. LODEko 54-57 art. EEPLko 27-32, 45-46 art. LOE aurreproiektuko 116-123 art.

35. Hezkuntza-proiektuari buruz, *Guía para la elaboración del proyecto educativo de centro*. Vitoria/Gasteiz: Eusko Jaurilaritzaren Argitalpen Zenbitzua, 1997. *Guía para la participación en los Consejos escolares*, Vitoria/Gasteiz: Euskadiko Eskola Kontseilua, Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 1992. BARBERÁ ALBALAT, V. *Proyecto Educativo, Plan Anual del Centro, Programación docente y Memoria*, 1. arg., Madril: Editorial Escuela Española, 1989. GAIKIN SALLÁN, J., DARDER VIDAL, P. *Organización de centros educativos*, 1. arg. Bartzelona: Praxis, 1994. GARGORRI, X., MUNICIO, P. (koordinatzaileak) *Participación, autonomía y dirección*, op cit. REY, R.; SANTAMARÍA, JM<sup>a</sup>. *El proyecto educativo de centro: de la teoría a la acción educativa*, 2. arg. Madril: Escuela Española, 1992. CODINA VALERO, M. eta beste batzuk. *Colección de materiales de formación y consulta para consejeros y consejeras escolares*, op cit.

36. Hezkuntza-proiektuan egindako aukerak proiektu zuzena izango dute ikastetxean gidari diren gainontzeko dokumentuetan. Horien artean, ikastetxeko ikasketa-proiektua edo curriculum-a, barne antolakuntzaren araudia, edo besteko dokumentu edo planak. Oro har, eskolan garatuko diren jarduerak ere zuzenduko ditu; esaterako, eskolaz kanpoko jarduerak edo jarduera osagarriak.

37. LOCEko 68.5 art.ak adierazten du: "El proyecto educativo de los centros concertados deberá incorporar el carácter propio al que se refiere el art. 73 de la presente ley". Eta LOCEko 73. art.ak honela dio: "1. Los titulares de los centros privados tendrán derecho a establecer el carácter propio de los mismos, respetando, en todo caso, los principios constitucionales y los derechos reconocidos a profesores, padres y alumnos. 2. El carácter propio del centro deberá ser puesto en conocimiento de los distintos miembros de la comunidad educativa por el titular del centro. La elección del centro por las familias y los alumnos comportará la aceptación del carácter propio de éste".

38. Ikastetxe pribatu kontzertatuen erregimen juridikoa lantzen du ROMEA SEBASTIÁN, A. egileak. *El régimen jurídico de los centros concertados*, 1. arg., Zizur Txikia (Nafarroa): Aranzadi, 2003.

39. Neutraltasuna ikastetxe publikoetan landuz, besteak beste: SALGUERO, M. *Libertad de cátedra y derechos de los centros educativos*, 1. arg., Bartzelona: Ariel, 1997; 163 eta hurrengo orr.

40. *Adoktrinatzeari* hitzarekin adierazi nahi da balioak modu dogmatiko eta absolutu batean igorri eta lantzea; ez da aintzat hartuko haurren kontzientzia-askatasuna, bere uste sendoak askatasunez eratzeko duen eskubidea, inolako inposaketarik gabe. Ez dira errespetatuko ikasleak berezko nortasuna eta identitatea eratzeko eduki ditzakeen balioak ere. Kontuan hartzekoa da EKEn eta garapenezko legerian agertzen den hezkuntzaren helburua dela ikaslearen nortasuna orotara garatzea, betiere haurren kontzientzia-askatasuna errespetatuz.

41. Hala adierazten du Adingabearen Babes Juridikoa arautzen duen 1/1996 Lege Organikoak. Bertako 6. artikuluan, honela adierazten da: "1. El menor tiene derecho a la libertad de ideología, conciencia y religión" (...); "3. Los padres o tutores tienen el derecho y el deber de cooperar para que el menor ejerza esta libertad de modo que contribuya a su desarrollo integral". Ildo berean, aipatzekoa da Nazio Batuen Asanblada Orokorrek 1989ko azaroaren 20an onartutako Konbentzioa, haurren eskubideen inguruan. 14. 2 artikuluan adierazten da: "Los Estados Partes respetarán los derechos y deberes de los padres y, en su caso, de los representantes legales, de guiar al niño en el ejercicio de su derecho de modo conforme a la evolución de sus facultades".

titular, baina bere kabuz aukerak egiteko gaitasun nahikoa lortu bitartean, gurasoak dira gaitasun-hutsune hori beteko dutenak. Betiere, kontuan izateko elementuak dira haurraren gaitasun kritikoa eta bere heldutasun maila aukera propioak egiteko<sup>42</sup>.

#### 4. Hezkuntzan parte hartzeko eskubidearen zehaztapena

Aipatu dugun moduan, hezkuntza-sisteman ere parte-hartzea oinarrizko printzipio bat da. Zuzenbidezko Estatu sozial eta demokratiko batean, hezkuntza-sistema ezin da eratu eskola-komunitatearen partaidetza kontuan izan gabe.

Ikuspuntu juridikotik, partaidetza hezkuntzan EKn 9.2 artikuluan jasotako parte-hartze printzipio orokorraren zehaztapentzat har daiteke. Dena den, hezkuntzan parte hartzeak badu aitorten zehatzik EKn: 27. artikuluan 5 eta 7 zenbakietan; bertan koka daiteke hezkuntzan parte hartzeko eskubidearen aitortpena. Ildo berean, kontuan hartzekoa da EK-ko 27.2. artikulutik ondorioztatu ohi dela hezkuntzaren helburu ere badela haurrak printzipio demokratikoetan heztea<sup>43</sup>.

Aipagarria da ikuspuntu juridikoa ez dela bakarrik partaidetza aztertzerakoan hezkuntzaren eremuan. Alegia, pedagogia eta hezkuntza

zientzien eremuan, hezkuntzan parte hartzeak eta demokraziak esanahi eta lanketa-eremu berezia dute. Eredu honetan, hezkuntza jarduketa partekatutzat hartu ohi da; eskola-komunitate guztiak hartu beharko du parte hezkuntzaren helburuak beteko badira<sup>44</sup>.

Gai hauek, oso interesgarriak izanda ere, gure azterketa eremua gainditzen dute. Izan ere, oraingoan, gure egitekoa da aztertzea zein den eskola-komunitateak hezkuntza-sisteman parte hartzeko duen aukeraren arauketa.

EK-ko 27. artikuluan, 5 eta 7 zenbakietan aitortzen zaio eskola-komunitateari parte hartzeko aukera, nahiz irakaskuntzaren programazio orokorrean, nahiz ikastetxeen kontrol eta kudeaketan. Kontuan izan behar dugu eskubide subjektibo edo egoera juridiko subjektiboen aurrean gaudela; EKn positibizatuta dauden egoera subjektiboak dira, eta babes juridiko gorena dute EKn duten kokapena dela eta (Atariko Tituluaren bigarren kapituluko lehen atalean).

Kontuan izaten baditugu gaur egun doktrinaren gehiengoak errealitate juridiko bat oinarrizko eskubidetza kalifikatzeko jarraitzen dituen irizpideak, esan daiteke hezkuntzan parte hartzeko eskubidea, EK 27.5 eta 27.7, oinarrizko eskubide bat dela<sup>45</sup>. Auzitegi Konstituzionalak, bere jurisprudentzian, EK-ko 27.5 eta 27.7ko

42. Adingabearen kontzientziaren garapen libreari buruz, LLAMAZARES FERNÁNDEZ, D. *Derecho de la libertad de conciencia*, II. liburukia, op cit.; 44-48 orr. PUENTE ALCUBILLA, V. Madril: Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales. Estudios, 2001.
43. Hala agertzen da EK garatzen duen oinarrizko legerian: LODE, LOGSE, LOPEG, LOCE eta LOE aurreproiektua.
44. ANTÚNEZ, S. "La regulación de la convivencia en los centros a través de los reglamentos institucionales". In: *Aula de innovación educativa*, 165. zkia., 1997. BOLIVAR, A. "Nuestra propuesta de educación democrática". In: *Cuadernos de pedagogía*, 317. zkia., 2002ko urria. DEWEY, J. *Democracia y educación*, 1. arg., Madril: Morata, 2002. FERNÁNDEZ ENGUIA, M. *La profesión docente y la comunidad escolar: crónica de un desencuentro*, op cit. SAN FABIÁN MAROTO, JL. "La participación". In: *Cuadernos de pedagogía*, 222. zkia., 1994. SAN FABIÁN MAROTO, JL. "Participar más y mejor". In: *Cuadernos de pedagogía*, 224. zkia., 1994.
45. Europar nagusi den doktrinaren arabera, oinarrizko eskubidearen kategoria: a) Estatu bateko Konstituzioan araututa egongo da; b) eskubide hauek titularrari askatasunez jarduteko eremu subjektibo bat aitortuko diote (ahalmen, askatasun, eskuduntza, botere eremu bat); d) eskubide hori babes juridiko bereziarekin bermatua egongo da. EKren eremuan, autoreak ez dira ados jartzen, eta oro har hiru jarrera aurki daitezke:
- a) batzuentzat, EKn benetako oinarrizko eskubideak lehenengo tituluko bigarren kapituluko lehen atalean daudenak bakarrik dira, hauek baitute babes jurisdikzional berezia, EK-ko 53.2koa; bigarren kapituluan aitortzen diren gainontzeko eskubideak eskubide konstituzionalak izango dira, baina ez oinarrizkoak.
- b) beste batzuentzat, EK-ko oinarrizko eskubideak bigarren kapituluan aitortutako guztiak dira; bigarren kapitulu honetako guztiak dira eskubide subjektibo (denak dira babes jurisdikzionala –arrunta [EK 24] nahiz berezia (EK 53.2) duten egoera subjektiboak). Autore hauentzat, oinarrizko eskubide izatearen muina EK-ko 53.1ean agertzen den berme berezian datza: eskubide horiek bakarrik lege garatu ahal izango dira, eta legegileak egingo duen garapenezko araudian, errespetatu beharko du EK-k aitortutako eskubide horien funtsezko edukia. Hala gertatuko ez balitz, Konstituzio kontrako helegitea aurkezteko daiteke.
- Bi jarrera hauentzat, hirugarren kapituluan ez dago benetako eskubide subjektiborik, Konstituzioan oinarritutako babes jurisdikzional gabeko errealitateak baitira, EK-ko 53.3.
- d) Ordea, zenbait autorerentzat, EK-ko lehenengo tituluan agertzen diren guztiak dira oinarrizko eskubide, nahiz eta EK-k ematen dien babes juridikoa ez izan berdina; hauentzat, eskubide bat oinarrizko izatea, irizpide axiologikoetan datza, eta ez ordenamenduak bermatzen dituen moduan. Eskubide bat oinarrizkoa izango da sistema demokratikoetan oinarri diren balore eta printzipioen zehaztapena denean, pertsonaren duintasuna eta nortasunaren garapen libre bermatzen dutenean. Gai hauek landuz, CRUZ VILLALÓN, P. "Formación y evolución de los derechos fundamentales". In: *Revista Española de Derecho Constitucional*, 9. urtea, 2. zkia., 1989ko urtarrila-apirila. COSSÍO DIAZ, JR. *Estado social y derechos de prestación*, 1. arg., Madril: Centro de Estudios Constitucionales, 1989. JIMÉNEZ CAMPO, J. "Artículo 53, protección de los derechos fundamentales". In: Alzaga Villaamil, O. (zuzendaria) *Comentarios a la Constitución Española de 1978*. Madril: Cortes Generales, Editoriales de Derecho reunidas. PECES-BARBA, G. *Derechos fundamentales*, 3. arg., Madril: Latina universitaria, 1980. PÉREZ LUÑO, A.E. *Los derechos fundamentales*, 5. arg., Madril: Tecnos, 1993. PRIETO SANCHÍS, L. "El sistema de protección de los derechos fundamentales: artículo 53 de la CE". In: *Anuario de Derechos Humanos*, 2. zkia., 1983. SOLOZÁBAL ECHAVARRÍA, J.J. "Algunas cuestiones básicas de la teoría de los derechos fundamentales". In: *Revista de Estudios Políticos (Nueva Época)*, 71. zkia., 1991ko urtarrila-martxo. UGARTEMENDIA ECEIZABARRENA, J.I. *El Derecho Comunitario y el legislador de los derechos fundamentales. Un estudio de la influencia comunitaria sobre la fundamentalidad de los derechos constitucionales*. 1. arg., Oñati: Instituto Vasco de Administración Pública, 2001.

parte hartzeko eskubideak, modu bateratuan kalifikatu ditu *ex constitutione* aitortutako eskubide subjektibotzat<sup>46</sup>.

Hezkuntzan parte-hartzeko eskubideak izaera autonomoa duela kontsideratu dugu. Alegia, lotura estua baldin badu ere hezkuntza eremuan oinarritzko diren hezkuntza-eskubidea eta irakaskuntza-askatasunarekin, ezin esan daiteke parte hartzeko eskubidea horien berezko edukien barne dagoenik. Eutsi daiteke hezkuntzan parte hartzeko eskubideak baduela entitate juridiko propioa. Horren adierazgarri da EK-n egiten zaion aitorten zehatza. Izan ere, Konstituzio egilearen borondatea izan zen partaidetza ahalmen hori espresuki adieraztea EK-ko 27.5 eta 27.7 artikuluetan; esan ohi da artikuluko horiek ezear, ezin eutsiko litzatekeela, juridikoki, parte hartzeko eskubidea oinarritzko eskubide dela.

Kontuan izatekoa da ere, parte hartzeko eskubidearen jatorritzko oinarri juridikoa, EK-ko 27.a gaudituz, EK-ko 9.2 artikuluko parte-hartze printzipio orokorrean dagoela; lotura estuan dago ere EK-ko 1.1 artikuluan adierazitako Estatu eredu sozial eta demokratikoarekin. Alegia, parte hartzeko eskubidea hezkuntzaren eremuan (EK-ko 27.5 eta 27.7 art.), parte-hartze printzipio orokorraren, (EK-ko 9.2 art.) zehaztapena da, Estatu sozial eta demokratiko baten eremuan (EK-ko 1.1 art.).

Eskubide honen erregimen juridikoa aztertzeko, kontuan izango dugu EK-n egiten den sistematizazioa. Bertan, parte hartzeko eskubidea bi eremutan aitortzen da: parte-hartzea irakaskuntzaren programazio orokorrean eta parte-hartzea ikastetxeen kontrol eta kudeaketan.

## 5. Parte-hartzea irakaskuntzaren programazio orokorrean

### 5.1. Eskubidearen zehaztapena

EK-ko 27.5 art.tik, botere publikoentzako mandatu bat ondorioztatzen da: pertsona oren hezkuntza-eskubidea bermatzea dagokie; horretarako, besteak beste, irakaskuntzaren programazio orokorraz baliatuko dira. Zeregin hori bideratu beharko dute hezkuntzan *afektatuta* dauden sektore guztien benetako parte-hartzearekin. Alegia, botere publikoek beren zeregina aurrera eramaterakoan ez dute bakarrik jardungo; kontuan hartu beharko dute hezkuntzan inplikaturako sektore guztien partaidetza.

Botere publikoei ezarritako obligazio horretatik, ondorioztatu daiteke modu *korrelatiboan*, pretentsio edo ahalmen bat hezkuntzan inplikaturatu dauden sektoreen alde. Ahalmen horretatik, eskubide subjektibo bat ondorioztatu daiteke: Konstituzioan aitortutako babes juridikodun egoera juridiko subjektiboa.

Irakaskuntzaren programazio orokorrean parte hartzeko eskubidea, legez arautua izan da. EK-ko 53.1 artikulua arabera<sup>47</sup>, EK-ko eskubideek botere publiko guztiak lotzen dituzte; bakarrik lege bitartez arautu ahal izango dira, betiere funtsezko oinarria errespetatuz; legegileak ez balu agindu hori beteko gai hau arautzerakoan, aurkeztekoa izango litzateke Konstituzio kontrako helegitea.

Legezko garapen hau LODEren bitartez egin zen, II. Tituluan, eta aipatzekoa da ondoren etorri diren lege organikoek –beste materia batzuk ez bezala– ez dutela gai hau aldatu.

EK-ko 27.5ean jasotako partaidetza eremua, irakaskuntzaren programazio orokorrarena da. Eredu honen barne dago hezkuntza sistemaren antolaketa orokorra. Batetik, beharren planifikazioa eta errekurtso esleipena, hala nola eskola lekuen zehaztapena. Horrekin batera, irakaskuntzaren programazio orokorraren parte da hezkuntza-sistema arautzea. Arautzeko gaiak izango dira, nahiz EK-ko 27. artikuluan aitortutako eskubide eta askatasunen erregulazioa, nahiz irakaskuntzaren bitartez ikastetxeetan landu beharreko eduki eta metodologia.

LODEren legegileak, organo kolegiatuen eraketaren bitartez bideratu du partaidetza eremu hau. Organo horien artean, Estatuaren eremurako, Estatuko eskola-kontseilua eratu zen. LODEk (34-35 art.) bestelako eremu lurraldearretarako eskola-kontseiluak ere aurreikusten ditu: nahiz Estaturik gaudenak –esaterako, Europa mailan–, nahiz Estaturik azpikoak –autonomia, erregio edo udal mailako kontseiluak–.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, bertako legeriak eratu du Euskadiko eskola-kontseilua; probintzia, zirkunskripzio eta udaletarako ere aurrerik eikusten dira eskola-kontseiluak. Aipatzekoa da, Euskadiko eskola-kontseilua kenduta, gainontzekoak –salbuespenak salbuespen–,

46. Vide. AKE 77/1985, ekainaren 27koa, 21. O.J., eta AKE 119/1995, uztailaren 17koa, 4. O.J.

47. EK-ko 53.1 art.: “1. Titulu honetako bigarren kapituluaren aitortutako eskubide eta askatasunek botere publiko guztiak lotzen dituzte. Legez soilik arautu daitezke, betiere funtsezko edukia errespetatuz, nola erabili eskubide eta askatasun horiek, zeinak 161, 1, a) artikuluko diogenaren arabera babestuko baitira”.

legez aurreikusita egon arren, ez direla guztiz arautu, eta araututakoak ere ia batere funtzionamendurik gabe daudela<sup>48</sup>.

Mota honetako eskola-kontseiluen artean, Estatuko eskola-kontseiluaren araudia izan da autonomia erkidegoek beren eskola-kontseiluak arautu dituztenean jarraitu duten eredia. Euskadiko eskola-kontseiluak, zentzu horretan eta berezitasun propioak baditu ere, ez du desberdintasun nabaririk erakusten: organoa inspiratzen duen filosofia, bere osaketa eta funtzioak antzekoak dira.

Neurri horretan, Estatuko eskola-kontseiluari egingo diogu aipamen. Aztertuko dugu eremu horretan aitortzen den parte hartzeko eskubidea.

## 5.2. Estatuko eskola-kontseilua: irakaskuntzaren programazio orokorreko partaidetza-organoa

Estatuko eskola-kontseilua izaera bikoitzeko organoa da. Batetik, kontsulta eta aholkularitza teknikoko funtzioak ditu; bestetik, eta aldi berean, hezkuntza-sektoreen parte hartzea bideratzen du. Izaera bikoitza agerian gelditzen da bere osaketa eta eskuduntza eremua aztertzean.

Osaketari dagokionez, Estatuko eskola-kontseiluan izaera teknikoko ordezkariekin batera, eskola-elkartea ordezkatzeko dutenak aurkitzen dira. EK-ko 27.5 artikulua idatzera kontuan hartuta, *“afektatuta dauden sektore guztiak”* ordezkatzeko daude Kontseilu honetan. LODEk garatu du EK-ko arau hori, baita zehaztu ere zeintzuk diren eremu horretan zerikusia duten kolektiboak. Horien artean daude: irakasleria, gurasoak, ikasleria, administrazio eta zerbitzuak, sindikatuak, patronala, hezkuntza administrazioa, unibertsitateak, udalak eta hezkuntzan prestigio aitortua duen pertsonalitateak. Dena den, zerranda ez da itxia; EK-ko 27.5k *guztiak* esaterakoan, irekita uzten du interesdun sektoreen egokitzea, garaian garaiko egoerara.

Kontseilu-kideen hautaketa dagokie sektore edo interes bakoitzaren eremuan gehiengoa duten elkartei. Beraz, gehiengoa duten elkarte hauei bide instituzional bat eskaintzen zaie, egonkorra

eta sistematizatua, partaidetza bideratzeko. Hautaketa modu honen kontrakoan artean aipatu ohi da kontseilua egitura zurrin eta burokratizatu batean bilakatzeko dagoen arriskua; horrela, urrundu egingo litzateke gizartearen egiazko dinamikatik, tendentzia berriak, kritikoak edo gutxiengo direnak ordezkartzarik gabe geldituz.

Gabezia hau gainditzeko, bide organikoa, parte hartzeko eskubideak bideratzeko bestelako aukerekin uztartu beharko litzateke.

Eskuduntzei dagokionez, izaera teknikoaren dutenekin batera (eremu pedagogiko, ekonomiko, antolaketakoak), beste batzuk, izaera sozial edo politikokoak dira, termino hau zentzu zabalean ulertuta. Alegia, kontseilu honen zereginen artean egongo da hezkuntzaren helburuak edo ildo nagusien zehaztapenean parte hartzea.

Kasu guztietan, kontseiluaren parte-hartzea kontsulta edo informazioaren eremuan geldituko da; ez dagokio azken erabakiak hartzea. Egingo dituen irizpen, informe edo proposamenak ez dira lotesleak izango erabakia hartzea dagokion organoarentzat. Dena den, gai batzuen inguruan, kontseiluari kontsulta egitea nahitaezkoa izango da<sup>49</sup>. Ukanbehar hau ez betetzeak, deuseztatu egingo du dagokion prozedura; modu honetan, besteak beste, EK-ko 27.5. artikuluan aitortzen den parte hartzeko eskubidea babestu da.

Partaidetza mota hau eraginkorra izan dadin, formalismo hutsean gelditu gabe, nahitaezkoa da baldintza batzuk ematea. Eskuduna den administrazioak kontseiluaren jarrerak kontuan hartu beharko litzateke; ez litzateke egokia izango botere publikoek beren erabakia aurrez zehaztea kontseiluaren jarrera kontuan hartu gabe, alde bakarrek arrazoi mugiezinetan oinarrituta. Dena den, eskuduna den organoaren azken erabakia ez balitz bat etorriko kontseiluak adierazitakoarekin, batez ere kontseilua derrigorrez kontsultatu behar den gaitan, gomendagarri ikusten da jarrera ezberdin hori nahikotasunez arrazoitzea.

Arazo baten aurrean, auzitegiek beren jarrera adierazi beharko balute, kontuan izan beharko lukete Estatu edo Autonomia Erkidego mailan dauden eskola-kontseiluen parte-hartzea, ez dela tramite formal hutsa, EK-ko 27.5. artikuluan aitortutako oinarrizko eskubide baten berma baizik.

48. Gai hau arautuz: 13/1988 Legea, urriaren 28koa, Euskadiko eskola-kontseiluak arautuz; 55/1989 Dekretua, Euskadiko Eskola Kontseilua arautuz, eta 1990eko apirilaren 4ko Agindua, Euskadiko Eskola Kontseiluaren funtzionamendurako erregelamendua.

49. Kontseiluari egin beharreko nahitaezko kontsulta hau legez ezarritako gai batzuen inguruan egingo da. Gai horien artean, aipatzekoak dira EK-ko 27. artikulua garapenerako emandako oinarrizko legeria, hezkuntza-sistemaren ordenazioa, hezkuntza edukiak, EK-ko 27.eko eskubide eta askatasunen arauak, eskola antolamendua, etab. Betebehar hau ez betetzeak, deuseztatu egingo du dagokion prozedura. Modu honetan, 27.5. artikuluan aitortzen den parte hartzeko eskubidea ere babestuko da.

### 5.3. Programazio orokorrean parte hartzeko eskubidea eta kontzientzia-askatasuna

Kontzientzia-askatasunaren ikuspuntutik, parte hartzeko eskubideak eremu honetan aukera ematen du, besteak beste, hezkuntzan zerikusia duten sektoreek izan ditzaketan planteamendu ideologiko, erlijioso edo filosofikoak adierazi eta helarazteko. Beraz, kontzientzia-askatasunarekin erlazionatuta dauden gaiak lantzen direnean kontseilu hauetan, parte hartzeko eskubideak ahalmenu egiten du sektore horien kontzientzia-askatasunaren egikaritzea.

Esaterako, kontseilu hauek –nahiz Estatukoak nahiz autonomia erkidegoetakoak– irizpen bat eman beharko balu planteamendu ideologiko, erlijioso edo filosofikoengan eragina duen arau baten inguruan, organo hauetan parte hartzeak, egon daitezkeen jarrera desberdinen adierazpena ahalmen dezake. Erabakia hartzea dagokion organoari helaraziko zaizkio gai horren inguruan dauden jarrera anitzak. Modu horretan, parte hartzeko eskubideak egikaritzen dituztenek aukera izango dute organo erabakitzailearen borondatearen eraketan parte hartzeko.

Modu honetako partaidetzak bermatzen du ez bakarrik sektore inplikatuaren kontzientzia-askatasunaren egikaritzea subjektiboa; gizartearen pluraltasunaren adierazpena ere bermatzen du, eta, horren harira, sistema demokratikoa bera. Neurri honetan, parte hartzeko eskubideak erabat lotuta daude Zuzenbidezko Estatu demokratiko eta sozialaren muinarekin.

## 6. Parte-hartzea ikastetxearen kontrol eta kudeaketan

### 6.1. Eskubidearen zehaztapena

EK-ko 27.7 artikuluan, parte hartzeko eskubidearen beste eremu bat aitortzen da. Bertan guraso, irakasleria eta hala badagokio, ikasleriari eskubidea aitortzen zaie ikastetxeen kontrol eta kudeaketan parte hartzeko; zehatzago, diru publikoz hornitutako ikastetxe guztien kontrol eta kudeaketan. Zehaztapen honen jatorria garai konstituziogilean, indar politiko desberdinen artean izandako tirabiretan dago.

Izan ere, indar politiko guztiek ez zuten ikuspegi berdina eskola-komunitatearen parte-

hartzeari buruz. *Ezkerreko taldeak* deitu ohi direnek, *kogestio* moduan planteatzen zuten parte-hartzea; *eskuin eta zentroko* deitu ohi direnek, parte-hartzea –berezik guraso eta ikasleriaren parte-hartzea–, ikastetxeak eta zuzendaritzak ezarritako ildo nagusien lorpenean lagundu edo kolaboratzera mugatzen zuten. Azken finean, elkarren arteko negoziazioa, lagapena eta adostasuna lortzeko borondatea izan ziren EK-ko 27.7 artikulua, duen idazkerarekin, onesteko giltza<sup>50</sup>.

Hasteko, *diru publikoz hornitutako ikastetxe* kontsideratzen dira, araudiaren arabera, ikastetxe publikoak nahiz kontzertatuak<sup>51</sup>. Eremu honetan, Konstituzioaren arabera, guraso, irakasleria eta ikasleriari parte hartzeko eskubide subjektibo bat aitortzen zaie, dagokion babes juridikoarekin. Alegia, oinarriko eskubide baten aurrean gaude; AKren jurisprudentziak ere hala adierazten du<sup>52</sup>.

Diru publikoz hornitzen ez diren ikastetxeei dagokienez, kontzertatu gabe dauden ikastetxe pribatuak alegia, EK-k ez du espresuki aitortzen eskola-elkartearen ahalmena ikastetxearen kontrol eta kudeaketan parte hartzeko. Ahalmen hori bai aitortzen dela, ordea, EK-ko 27. artikulua garatzen duen oinarriko legerian; horregatik adierazten da eskubide hau lege bidez sortutako edo aitortutako eskubide bat dela, eta ez Konstituzioan bertan aitortutako oinarriko eskubide bat.

EK-ko 27.7 artikulua adierazten du legeak ezarritako moduan garatuko dela eskubide hau. Izan ere, Konstituzioak eraturako eskubide bat izanagatik, legearen zeregina ezinbestekoa da bere garapenean; betiere, legez bakarrik garatu ahal izango da eskubidearen erabilera, eta legegileak errespetatu egin beharko du eskubidearen funtsezko edukia (EK-ko 53.1 art.). Aipatzekoa da zeregin horretan legegileari aitortutako esparrua zabala dela.

Kontuan eduki behar da, jadanik gai hau arautu zuen lehenengo garapen-legerietatik hasita, diru publikoz hornitutako ikastetxeen eremuan parte hartzeko eskubidearen erregimen juridikoa modu desberdinean arautu dela ikastetxe publikoetan eta pribatu kontzertatuetan. Izan ere, legegileak argi ikusi du eskubidearen eremua ezin dela berdina izan ikastetxe guztietan.

Ikastetxe pribatuetan, publikoetan ez bezala, kontuan hartzekoa da titularraren irudia; hauek EK-k berak aitortuta, 27.6 artikuluko

50. PUELLES BENÍTEZ, M. op cit; 393-402 orr. FERNÁNDEZ-MIRANDA Y CAMPOAMOR, A. 1. arg., Madrid: Editorial Centro de Estudios Ramón Areces, 1988; 143-166 orr.

51. LOCEko 75. art.

52. AKE 5/1981 18. oinarri juridikoa. AKE 77/1985 21.oinarri juridikoa. AKE 119/1995 4. oinarri juridikoa.

oinarrizko eskubidearen jabe dira, ikastetxeak eratu eta zuzentzeko ahalmentzen dituenak. Oinarrizko eskubide guztiekin gertatzen den moduan, eskumen esparru berdinean –ikastetxeen kontrola eta kudeaketarena– bateratu beharrekoak dira titularraren eskubideak eta eskola-komunitatearenak.

EK-ko 27.7 artikulua, ikastetxeen kontrol eta kudeaketaren esparruan aitortzen du parte hartzeko eskubidea. AK-k adierazi du esparru honetan eskola-komunitatearen esku-hartzea izatera desberdinekoa izan daitekeela: informazio soilari begira, kontsultarako, ekimenak edo inizatibak aurkezteko, baita erabakiak hartzeko ere. Argi adierazi du AK-k parte-hartzeak ez duela zertan ikastetxearen administrazio eremu soilera mugatu.

Ildo honetan, LODE-LOGSE-LOPEGeko legegileak eskola-komunitatearen partaidetza modu batean ikusi eta garatu zuen; ordea, LOCEko legegilearen ikuspegia bestelakoa izan da. Aurrera daiteke LOEren aurreproiektuaren aukera lehenengoan planteamenduetara bueltatzen dela, baina LOCEren zenbait markekin.

## 6.2. Ikastetxeko eskola-kontseilua: ikastetxearen kontrol eta kudeaketako partaidetza-organoa

Eremu honetan ere, parte hartzeko eskubidea organo kolegiatuaren bidetik bideratu da nagusiki. Kontsideratu ohi da parte hartzeko instituzioak eratzea arrazoizko aukera bat dela ikastetxeko erabaki garrantzitsuak hartzeko. Horrek ez du kentzen eskola-komunitateko kideek –nagusiki guraso eta ikasleriak– ezin dutenik parte hartzeko eskubidea era indibidual eta zuzenean erabili, partaidetza-organoei ez dagozkien eskumenetan<sup>53</sup>.

Oro har, indarrean dagoen legeriaren arabera, ikastetxe publiko nahiz kontzertatuatan agertu beharreko organoak ikastetxeko eskola-kontseilua eta klaustroa dira. Oinarri honen gainean, ikastetxe publikoiei begira, legegileak partaidetza bideratzeko bestelako organoak ere

aurreikusi ditu. Horien artean, asanbladak, juntak, guraso edo ikasle elkarteak, zuzendaritza edo irakaskuntza koordinazioa bideratzeko organoa.

Araudiaren eskakizunak bete eta gero –betiere zabalagoak ikastetxe publikoetan eta murriztagoak kontzertatuatan–, ikastetxeari autonomia aitortzen zaio, barne-erregelamendu bitartez parte hartzeko bestelako bideak ezartzeko. Izan ere, eremu pedagogikotik datozen ekarpenak kontuan hartuta, ikastetxeetan benetako partaidetza-kultura garatzeko, eskola-elkartearen parte-hartzea ezin da legez ezarritako organoetara mugatu; hauen kalterik gabe, ikastetxeak eskola-elkartearen partaidetza bere neurriara egindako organoetara bideratu beharko du. Nahitaezkoa da ildo honetan ikastetxei autonomia aitortzea.

Hori horrela izanik, lan honetan gure zeregina izan da parte hartzeko eskubidearen erregimen juridikoa zein den aztertzea. Horrek eramatan gaitu araututako parte-hartze organoak aztertzea. Hasteko, aplikagarri izango den legeria, Estatu osorako Parlamentu zentralak emandako oinarrizko legeria izango da: LODE eta LOCE nagusiki, eta LOGSE eta LOPEG indarrean gelditzen diren artikulua gutxitan, betiere LOE aurreproiektua lege izatera iritsi bitartean. Oinarrizko legeria hau garatuz, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, aipatzekoa da, ikastetxe publikoiei dagokienez, Euskal Eskola Publikoaren Legea (aurrerantzean EEPL).

Legez aurreikusitako partaidetza-organoen artean, lan honetan arreta berezia eskainiko diogu eskola-kontseiluari, bertan eskola-komunitateko kideak baitaude ordezkatuta. Ekan aipamen espresua egiten zaie guraso eta irakasleriari, hala nola ikasleriari, “hala badagokio<sup>54</sup>”. Garapenezko legeriak ikastetxe publikoetan administrazio eta zerbitzuetako pertsonalera eta udaleko ordezkarira zabaldu du partaidetza hau<sup>55</sup>; ikastetxe kontzertatuatan, kontseiluko kide izango da ikastetxeko titularraren ordezkarria ere<sup>56</sup>.

Oro har, nahiz oinarrizko legeriak aurreikusitako eskola-kontseiluak, nahiz EEPLk garatutako ordezkaritza-organo gorenaren eskuduntzak, bloke desberdinetan sistematiza daitezke<sup>57</sup>: a) ikastetxearen funtzionamendurako

53. Hala adierazten du AK-k 5/1981 Epaiko 19. oinarri juridikoan.

54. “Hala badagokio” honi eman zaion zentzua zera da: ikasleriak adin batetik aurrera hartuko duela parte eskola-kontseiluan. LOCEk 81.3 art.an adierazten du ikasleria eskola-kontseiluko kide izan daitekeela DBHko 3. mailatik aurrera (14-15 urte). LOCEko 81.4 art.an adierazten da Lehen hezkuntzako 3. mailatik aurrerako ikasleak (10-12 urte) eta DBH 1. eta 2. mailakoek (12-14) eskola-kontseiluetan parte hartu ahal izango dutela Administrazio eskudun bakoitzak ezarritakoaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoan aurreikusten da (201/1993 Dekretua, uztailaren 6koa) ikasleriak parte hartu ahal izango duela eskola-kontseiluan DBHko 1. mailatik aurrera (12 urte).

55. LOCEko 81 art.an arautzen da eskola-kontseiluaren osaketa; EAEn EEPLko 32. art.an.

56. LOCEko 56. art.

57. Eskola-kontseiluaren eskuduntzak LOCEk jasotzen ditu 82. art.an, eta EEPLk 31.ean. Betiere, ikastetxe bakoitzean eskuduntza hauek zehaztuko dira bertako barne funtzionamendua arautzen duen Erregelamenduan.

ildo nagusiak jasotzen dituzten erabakiak hartzea; b) ikasleriarekin erlacionatutako gaiak –esaterako, onarpena eta diziplina–; d) gai ekonomikoak; e) ikastetxea aztertu eta ebaluatzeko gaiak. Ikastetxe kontzertatuetan eskola-kontseiluari dagokio ikasleriaren hautaketa ere eta, hala badagokio, kaleratzea<sup>58</sup>.

Eskuduntza hauen artean, guretzat garrantzi berezia dute kontzientzia-askatasunarekin lotura dutenek.

### 6.3. Eskola-kontseiluan partaidetza eta eskola-elkartearen kontzientzia-askatasuna

Eskola-kontseiluaren eskuduntzak aztertzen badira, ondoriozta daiteke –betiere hezkuntza eta baloreen igorpenaren gaiari dagokionez– organo honek parte har dezakeela ikastetxearen balore-aukerarekin erlacionatuta dauden hainbat gaitan.

Horien artean dago ikastetxearen jarduera gidatuko duen ildo nagusiak jasotzen dituzten dokumentuak onestea: esaterako, hezkuntza-proiektua, ikasketa-proiektua edo ikastetxearen barne-araudia. Eskola-kontseiluak parte hartuko du dokumentu horien gauzatzea gidatuko duen zuzendariaren hautaketan ere. Ikastetxe kontzertatuetan, irakasleriaren hautaketa eta kaleratzeetan ere hartuko du parte. Bere eskuduntzen artean dago, baita, ikasleriarekin gertatzen diren diziplina-arazo larrienak erabakitzea<sup>59</sup>.

Maila zehatzago batean, eskola-kontseiluek parte hartzeko ahalmena izango lukete eskola-elkarteko kideen kontzientziatzko zenbait arazoren inguruan. Horien artean, aipatzekoa da erlijio edo ideologia zehatzen zeinu edo sinboloak egotea ikastetxean, bereziki ikastetxe publikoetan, hala nola ikasleriak edo irakasleriak soinean zeinu horiek eramatean sor daitezkeen arazoak. Arazorik ere planteatu da irakasten diren zenbait irakasgaren inguruan; hala nola, sexu-heziketa edo erlijioaren irakaskuntzan, besteak beste.

Ikastetxeak edo bertako kontseiluak aipatutako gaien inguruan, edo antzekoak diren

bestelakoetan, adierazten duen jarrerak eragina izango du ikastetxearen giro axiologikoan, eta honek bere ondorioak izango ditu eskola-elkarteko kideen kontzientzia-askatasunaren garapenean.

Kontuan izatekoa da ikastetxeetan parte hartzeko eskubidea erabiltzeak, ikuspegi subjektibotik, aukera ematen diela parte-hartzaileei dituzten ideiak, sinesteak edo uste sendoak eskola-elkartean adierazteko; gainera, eskola-kontseiluaren eskuduntzen eremuan, jarrera horiek ikastetxeak kontzientzia-askatasunarekin erlacionatuta dauden zenbait gaitan duen jarrera determina dezakete.

Parte hartzeko eskubide hauek bideratzeak, eskola-elkartean egon daitezkeen sentsibilitate desberdinen adierazpena ahalmentzen du. Horrek, eskola-elkarbizitzarako eremu anitz baten eraketa ekar dezake. Modu horretako eremu batean, berma daitezke eskola-elkarteko kideen eskubide eta askatasunen egikaritzea egokia, hala nola elkarbizitza demokratikoaren adierazgarririk hezitzaileena.

### 6.4. Eskola-kontseiluaren araudia Estatuak emandako oinarrizko legerian: LODE *versus* LOCE, eta datorren LOE berria

Hasteko, kontuan izan behar da gaur egun EK-ko 27.7. artikuluko eskubidea garatzen duen oinarrizko legeria LOCEn aurkitzen dela; gai hau Legearen V. Tituluan arautzen da zehazki. Gai honen aplikazioa zuzeneko izan da LOCE 2002ko abenduan indarrean sartu zenez geroztik<sup>60</sup>. Dena den, LOE aurreproiektua kontuan izaten bada, aldaketak nabari dira.

LOCE indarrean sartu arte, gai hau LODE eta LOPEGen arautu zen. Hasiara batetik, LODEk ikastetxearen gobernu-organo moduan arautu zuen eskola-kontseilua; ildo berean jarraitu zuen LOPEGek. Izaera hori zuela, eskola-kontseiluari ikastetxeko gai nagusiren inguruko erabakiak hartzea zegokion. Ikastetxe publikoen eremuan, eskola-kontseilua zen ikastetxearen gobernurako organo gorena. Ikastetxe kontzertatuetan ere, LODEk kontseilua izendatzen zuen gobernu

58. LODEko 57. art.

59. Aztertuko dugun bezala, LOCEtik aurrera, eskola-kontseiluak zenbait aldaketa izan ditu. Gobernu organo izaera galdu du, eta zenbait eskuduntza ere bai. Horien artean, ikasleriaren diziplinako arazo larriak erabakitzea; LOCEz geroztik, erabakia zuzendariari dagokio, eta honek kontseiluari komunikatuko dio erabakia.

60. Eskola-elkarteko parte-hartzearen arauketan ez da gertatu beste gai batzuetan bezala; esaterako, erlijioaren irakaskuntzan, non LOCEren aplikazioa graduala aurreikusitako zen 827/2003 Errege Dekretuak ezarritako aplikazio-egutegian. 2004ko martxoan gertatutako Gobernu aldaketak, Errege Dekretu honen aldaketa ekarri zuen. Errege Dekretu berri baten bitartez (ED 1318/2004), atzeratu egin zen LOCEren zenbait gairen aplikazioa, baina hori ez da eskola-partaidetza kasua.

organo bezala. Betiere, zeregin hau titularraren gobernu-ahalmenarekin uztartu beharrekoa izango zen; horregatik esan ohi da kontzertatueta gobernu partekatua dela.

LOCEREkin, ordea, aldaketa nagusi bat eman da: eskola-kontseilua eta klaustroa, LODEkin ez bezala, ez dira gobernu-organo kontsideratuko. LOCERentzat, eskola-kontseilua eta klaustroa *ikastetxeen kontrol eta kudeaketan parte hartzeko organoak* dira; ikastetxearen gobernu zuzendariaren eta bere taldearen esku uzten da. Noski, izen aldaketa honek eragina izan du organoen eskumenetan ere. LOCERen aldaketa, bereziki, ikastetxe publikoei begira gertatu da, hauentzat arautu baitu LOCEk osotasunean eskola-kontseiluaren erregimena. Kontzertatuei dagokienez, zenbait aldaketa egin dira, hainbat eskuduntza murriztuz, baina mantendu egin dira kontseiluak zituen eskuduntza batzuk, titularrarekin batera, ikastetxearen gobernuaren eremuan, dagozkion erabakiak hartzeko.

LOCEREkin, ikastetxe publikoetako eskola-kontseiluaren zenbait eskuduntza desagertu egiten dira, horien artean zuzendaria hautatzeko ahalmena. LOCERen arabera, eskola-kontseiluak, berak bakarrik, ezingo du ikastetxeko zuzendaria aukeratu LODE-LOPEGen aurreikusten zen bezala; sistema berri bat arautzen da zuzendaria hautatzeko, non eskola-elkartearen parte-hartzea, bereziki gurasoena, zehaztu gabe gelditzen den.

Ikastetxe publiko nahiz kontzertatueta, zenbait gaien inguruan erabakiak hartzeko ahalmena, kontseilutik beste organo batzuetara igarotzen da, hau da, zuzendariarengana edo zuzendaritza taldearengana. LODE-LOPEGen arabera, eskola-kontseiluari zegozkion ikasleriaren hautaketa, diziplina arazo larriak, ikastetxearen urteko planaren onspena eta ebaluaketa; berea zen azken hitza; LOCEREkin, kontsulta bakarrik egingo zaio, edo beste organo batek –zuzendaritzak kasu honetan– hartutako erabakiaz informatuko da: erabakitzea zuzendaritzari dagokio.

LOCERen joera, funtzionamendu eta kudeaketaren erabakiak zuzendaritzari ematea da, eta eskola-elkartearen partaidetza bideratzen duten organoak kontsulta eta informazio zereginetarako uztea.

Agerian gelditzen da desberdinak direla eskola-elkartearen partaidetzari buruz LODE-LOGSE-LOPEG lege-blokearen aukera eta

LOCEk egindakoa. Izan ere, desberdina da eskola-elkartearen partaidetza ulertzeko modua ikastetxeen kontrol eta kudeaketan. Gure ikuspuntutik, LODEk *maila sakonago* batean garatu ditu EK-ko 27.7 artikuluan eskola-elkarteari aitortutako eskubidearen aukerak; LOCEk, ordea, maila apalagoan uzten du eskola-elkartearen partaidetza ahalmena. Litekeena da, ikuspuntu tekniko hutsetik, bi aukerak Konstituzioarekin bat etortzea. Dena den, LOCERen aukerak, kontseiluaren erabaki-eremua murriztean, mugatu egiten du EK-ko 27.7an aitortutako eskubidearen eremua ere.

Kontuan izaten badugu LOE aurreproiektua, agerian gelditzen da LOCERen aukera atzean uzten dela, nolabait LODEren planteamenduetara bueltatuz. Alegia, eskola-elkartearen partaidetza bermatu nahi da ikastetxearen antolaketan, gobernuan, funtzionamenduan eta ebaluaketan<sup>61</sup>; eskola-kontseilua eta klaustroa berriro gobernu-organo moduan kalifikatzen dira<sup>62</sup>, baina eskola-kontseiluaren eskuduntzak aztertzen badira, agerian gelditzen da LOCEREkin gertatutako zenbait murriztapen mantendu egiten direla. Esaterako, LOEk dio eskola-kontseiluak parte hartuko duela zuzendariaren hautaketan, baina erabakia ez dagokio berari bakarrik, LODE-LOPEGen aurreikusten zen moduan. Ikasleriarekin gerta daitezkeen diziplina arazo larriak erabakitzea ez dago kontseiluaren esku, LODE-LOGSE garian gertatzen zen bezala; LOCERen eredia jarraituz, erabakia beste organo bati –zuzendariari– dagokio; honek hartutako erabakia kontseiluari adieraziko zaio, bere esku utziaz, hala badagokio, arauen errespetua bermatzea.

Modu honetako garapen murrizkorrari hezkuntzan parte hartzeko eskubidearen erabilerak dituen zailtasunak gehitzen badizkiogu, agerian gelditzen da eskubide hauen krisi egoera. Izan ere, eskubidearen araudia bata edo bestea izan, nabaria da praktikan eskola-elkarteko kideen parte-hartze maila –bereziki guraso eta ikasleriarena– nahiko baxua dela.

## 6.5. Eskola-kontseiluaren araudia Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan

Aipatzekoa da 1993ko EEPL oso aurreratua izan zela bere garaian eskola-elkartearen partaidetza arautzen. 1990eko

61. LOE aurreproiektuaren 115. art.a.

62. LOE aurreproiektuaren 122-125 art.ak.



LOGSE jarraituz, Lege honek ikastetxeen autonomia-eremuak landu zituen bereziki, aukera garrantzitsuak eskainiz, behintzat lege mailan. Eskola-elkarteko kideen partaidetzari dagokionez ere, aurrerapausoa eman zuen Estatuko legeriarekiko, bereziki guraso eta ikasleriaren partaidetza bultzatuz kontseiluetan; izan ere, aurreikusten da guraso eta ikasleek eskola-kontseilu edo ordezkari organo goreneko kideen erdia izango dutela, LODE-LOPEGeko herena gaindituz<sup>63</sup>.

Aipatzekoa da LOCEk araututako partaidetza-sistemak desberdintasun nabariak dituela EEPLn arautzen denarekiko. Izan ere, EAEk emandako garaperako legeria propioak LODE eta LOGSE izan zituen oinarritzat. Hauen gainean eraiki du EAEk bere hezkuntza-sistema propioa, baita partaidetzari dagokiona. Oinarri horiek aldatuta, Estatuak emandako oinarritzko legerian, EAEko eraikina balantza batean gelditu da zenbait gairen inguruan, horien artean eskola-elkarteen partaidetza. Dena den, eta kontuan hartuta LOCEk zehaztasun gabezia nabariak dituela, hor gelditu zen EAEko araudia nola egokitu itxaroten; gainera, 2004ean gertatutako Gobernu aldaketa eta gero, Gobernu sozialista berriak LOCE aldatzeko asmoa adierazi zuen.

LOE aurreproiektuarekin, neurri handi batean, Estatu zentralaren eta EAEko legeriaren arteko egokitzapen arazoak desagertu egin dira parte-hartzeko eskubideari dagokionez. Dena den, badaude egokitu beharreko gaiak; besteak beste, zuzendariaren hautaketa ikastetxe publikoetan, edo eskola-kontseiluen zenbait eskuduntzen aldaketak.

Esan beharrekoa da lege mailan aukera zabalak eskaini izanagatik, errealitatea oso bestelakoa dela. EAEn ez da oso altua eskola-komunitateko kideen parte-hartze kopurua; oro har, badirudi -eta bereziki gurasoei dagokienez- eskola-kontseiluan parte-hartzea ez dagoela beraien lehentasunen artean<sup>64</sup>.

## 6.6. Ikastetxean parte hartzeko eskubidea egikaritzeko zailtasunak

Aipatu dugun moduan, nahiz eta parte hartzeko eskubidea maila gorenean aitortu eta lege mailan hedadura desberdinarekin garatu (LODE/LOCE), praktika mailan agerian gelditzen da eskubide hauen erabilera eskasa. Zailtasunak daude eskola-kontseilu guztien funtzionamenduan; gainontzeko partaidetza bideek –hala nola elkarteek edo asanbladek– ez dute, oro har, hobeto funtzionatzen.

Parte-hartze ezaren arrazoiaren artean, *interes falta* aipatu ohi da<sup>65</sup>. Izan ere, nolabaiteko tradizio demokratiko eta bizi maila lortu duten gizarte aurreratuetan, jarrera hedonista eta individualistak nagusitu omen dira; konpromiso solidarioaren etikan urri, eta herritartasunerako kulturaren hezi gabeko jendea omen da. Egoera honetan, herritarrek nahiago izaten dute parte-hartze prozesuetatik kanpo gelditzea. Adituen arabera, zaila izaten da modu honetako parte-hartzea erreperatzea<sup>66</sup>.

Beste batzuetan, parte-hartze ezaren arrazoiaren artean, eskola-antolaketa okerreko funtzionamendua aipatzen da. Kasu hauetarako, egoki ikusten da dauden trabak gainditzea. Esaterako, kontseiluetan partaide direnek faltan sumatzen dute formazio egokia eta informazio nahikoa beren zeregina betetzeko; faltan sumatzen dute ere beren parte hartzearen kontsiderazioa. Sarritan gertatzen omen da, bestetik, eskola-komunitateko kideek ez dutela beren burua kontseiluan parte hartzeko gai ikusten; guraso nahiz ikasleriaren aldetik beldurra nabari ohi da barregarri geratzeari, edo beren partaidetzak eragin ditzakeen ondorio negatiboak jasateari. Irakasleriaren aldetik, oro har, agerian gelditzen omen da beren ondoeza edo haserre kolektiboa, baita kontrako jarrera ere guraso eta ikasleriaren parte-hartzearen aurrean, nahiz klase barruan ikasleriarekiko, nahiz boterearen kudeaketan. Irakasleriak duen

63. Hala arautzen da EEPLko 32. artikuluan. EEPLn eskola-elkarteen partaidetza-organoari *ordezkari organo gorena* deitzen zaio, eta 31. artikuluan adierazten da berari dagokiola "(...) eskola-bizitzarako funtsezkoak diren erabakiak hartzea"; "ikastetxearen autonomia esparruan ikastetxearen jardueraren azken erantzulea da".

64. Euskadiko Eskola-Kontseiluak (<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>), hala nola Estatuko Eskola-Kontseiluak (<http://www.mec.es/cesces/inicio.htm>) dituzten web orrialdeetan, gai hauen inguruan informazio interesgarriak dituzte eskuragarri, bereziki egiten dituzten Informeetan.

65. Parte-hartze ezaren arrazoiak lantzen ditu GIL VILLA, F. *La participación democrática en los centros de enseñanza no universitarios*, 1. arg., Madril: Centro de Investigación y Documentación Educativa, 1995; 133 or. eta hurrengoak.

66. Ildo berean, kontsideratzen da herritarra ongizateko estatuak *liluratuta* bizi dela; egoera horretan eroso, herritarren parte hartzeko asmoak bertan behera gelditzen dira. Hala adierazten du RIVIÈRE, M. *Lo cursi y el poder de la moda*, 1. arg., Madril: Espasa Calpé, 1992; 157-158 orr. "El estado de bienestar es el gran seductor, padre y hermano que hace posible nuestra felicidad, condición previa para que nosotros mismos podamos seducir y ser seducidos. La seducción del estado del bienestar consiste en la asunción de toda la responsabilidad que le delegan de su propia cuota los ciudadanos... ¿Quién va a querer razonar cuando la imagen basta? ¿Quién desea comprometerse y participar en política cuando el poder dice que está ahí para solucionarlo todo y para que nuestros problemas no existan?...".

egitatezko nagusigoa, hala nola jarrera menperatzailea, oztopo izan ohi da gainontzeko kideekiko. Azken finean, ikastetxeetan parte hartzeko tradizioa falta da, eta parte-hartze organoetan sarritan ibili direnen artean, nekaldi eta desilusioa nabari da<sup>67</sup>.

Gabezia hauek gainditzeko, hainbat proposamen luzatu da. Nahitaezko kontsideratzen da, batetik, ikastetxeei autonomia eremu zabalago bat aitortzea, parte-hartzeko prozesu arautuak ikastetxe bakoitzeko errealitatera egokitzeko. Parte hartzeko egiturak ezin dira konplexuak izan; antolaketetan malgutasunak, gardentasunak eta sinpletasunak izan beharko lukete irizpide. Garrantzitsua da eskola-komunitateko kide guztiak partaidetza-dinamikatan heztea. Bultzatzekoak izango dira eskola-elkartearen partaidetza sustatu nahi dituzten zuzendaritzak. Helburua izango da eskola-elkarteko kide guztiak konprometitzea ikastetxeko zereginetan. Esan ohi da modu horretan hezkuntzak hobeto beteko dituela bere helburuak.

Aipatu ditugun zailtasunen aurrean, batzuentzat porrot egin du LODE-LOGSE-LOPEG Legeetan aurreikusitako demokrazia parte-hartzailearen ereduak, ikastetxeen gobernurako. Horregatik, aukera izan dutenean, esaterako LOCE Legearen bitartez, banandu egin dira batetik ikastetxeen gobernurako organoak, eta bestetik eskola-elkartearen partaidetza bideratzeko organoak (LOCEko 78. art.). LOCE ikusita, eraginkortasunaren izenean, bateraezin kontsideratzen dira ikastetxearen gobernua eta eskola-elkartearen partaidetza.

Beste batzuentzat, ordea, eskola-komunitatearen partaidetza eremu guztietan, baita gobernuan ere, hezkuntzaren kalitatearen onerako da. Aldi berean, eskola demokratizatzen laguntzen du, partaidetzaren kultura landuz; horrek bere eragina izan dezake gizartearengan, bizitzako eremu guztietan parte hartzeko prestatuta dauden herritarrak heziko baititu. Planteamendu hau jarraituta, eskola-elkartearen partaidetzak dituen zailtasunak ez lirakeke gaindituko kontseiluaren eskuduntza-eremua murriztuz, eta ikastetxearen gobernutik aldenduz, LOCErekin gertatu den bezala. Dauden zailtasun eta oztopoak desagerrarazten joatea da jarraitu beharreko bidea, betiere eskola-elkartea ikastetxearen eremu guztietan barneratuz, baita gobernuan ere.

Badirudi ildo honetan kokatzen dela LOEren aurreproiektua.

## 7. Ondorioak

Agerian gelditzen da parte hartzeko eskubideak hezkuntzaren eremuan dituen zailtasunak maila eta eremu desberdinetakoak direla. Beraz, zailtasun horiek gaindituko badira, antza denez hezkuntzaren kalitatearen onerako, nahitaezkoa da eremu juridikoa gainditzen duten beste eremu batzuk ere lantzea. Dena den, egia da badagoela eremu juridikoan eskubide honen eraginkortasunaren alde neurriak hartu beharrik.

Garrantzitsua da argi edukitzea EK-ko 27.5 eta 27.7 artikuluetan aitortzen den parte hartzeko eskubidea, oinarritzko eskubide autonomo bat dela. Kontuan izanda Zuzenbidezko Estatu sozial eta demokratiko baten eremuan gaudela, botere publikoen zeregina ez da mugatzen eskubideak formalki aitortzera; beraiei dagokie ere eskubide horiek bene-benetakoak izan daitezen neurriak hartzea (EK-ko 9.2 art.). Ildo horretatik, botere publikoek, nahiz legegile, exekutibo eta judizialak, neurriak hartu behar dituzte dagozkien eremuan, hezkuntzan parte hartzeko eskubidea bene-benetakoa izan dadin, erabileran ez bada ere, planteamendu juridikoetan.

Hasteko, parte hartzeko eskubideak arautzerakoan, ondo etorriko litzateke nolabaiteko adostasuna lortzea eskubide honen egikaritzea eremuaren inguruan. Legeak bermatu beharko luke zein den parte hartzeko eskubidearen eremu adostu hori; ahal dela, jadanik lortu den partaidetza-maila murriztu gabe. Hori errespetatuta, araudiak ez luke galarazi behar ikastetxeetan partaidetza-aukera zabalagoak gauzatzea; gai honetan ere, ikastetxeari aitortutako autonomia eremua malguagoa izan beharko litzateke.

Hezkuntzan parte hartzeko eskubidea arautzearekin batera, hezkuntza-sisteman bertan arreta berezia eskaini beharko litzaioke eskola-elkarteko kide guztien trebakuntzari partaidetza gaietan; horretarako nahitaezkoa da heziketa, asistentzia eta kideak kontzientziatzea.

Gai hauen inguruan gatazkak gertatuko balira, eta duten jarrera adierazi beharko balute ikastetxeak, administrazioak edo auzitegiek, garrantzitsua izango litzateke kontuan hartzea parte hartzeko eskubidea oinarritzko eskubide bat dela. Eskubide honek aukera ematen die titularrei dituzten planteamendu propioak adierazteko –lan honetan eremu ideologiko, erlijioso, filosofiko edo antzerakoetakoak azpimarratu ditugu–, eta zenbaitetan azken erabakia hartuko duten

67. GIL VILLA, F. *La participación democrática en los centros de enseñanza no universitarios*, op cit. 133. or. eta hurrengoak.

organoetan parte hartzeko edo organo hauengan eragina izateko.

Eskola-elkarteari aukera ematen zaio hezkuntza-sistemak berak nahiz ikastetxe bakoitzak izango dituen identitate-zeinuen zehaztaperen prozesuan parte hartzeko. Modu honetan, bermatuko da, batetik, eskola-eremuko kideen kontzientzia-askatasunaren garapena, hala nola indarrean dagoen Estatu-ereduaren oinarri diren pluraltasuna eta demokrazia.

Amaitzeko, esango dugu hezkuntzan parte hartzeko eskubideak hezkuntza-jarduera bideratzeko aukera ematen duela, denek parte hartuko duten eremu plural eta demokratiko batean. Eremu hori da hezkuntza arloko eskubideak modu efektiboan egikaritzeko egokiena. Bide batez, hezkuntza-sistema partaidetzaren bidetik bideratzea egoki izan daiteke indarrean dagoen sistema demokratikoa bera landu eta garatzeko.